Mi nombre es Josu, tengo veinte años y te escribo en nombre de toda mi familia. En casa somos mi hermano Xabier, de dieciocho años, mi madre Garbiñe y mi padre Joseba.

Llevamos ya dos semanas sin salir de casa. Mis padres trabajan desde casa y mi hermano y yo estudiamos. Mi abuela M^a Pilar esta sola en casa, y nos entristece mucho no poder visitarla; para ella también es duro. Mis otros abuelos, Garbiñe y Jesús están en la misma situación, y nos preocupan mucho porque no están muy bien de salud.

Estar todo el día encerrados juntos hace saltar chispas entre mi hermano y yo. Solemos hacer cosas juntos pero normalmente estamos cada uno a lo suyo. A mí me gusta leer, dibujar y también estoy aprovechando este tiempo para aprender a cocinar. Y a Xabier le gusta hacer deporte y está intentando comer mejor. Sin embargo mi padre siempre dice que quiere ponerse en forma pero luego le da pereza.

Estos días nos estamos dando cuenta de que mi hermano y yo tenemos que ayudar mucho más en casa, porque mis padres tienen mucho trabajo.

Seguro que a ti también se te está haciendo duro todo esto, y que estás deseando volver a la normalidad para disfrutar del aire libre y la compañía de los tuyos.

Nosotros también tenemos muchas ganas.

Cuando todo esto pase, que será pronto, hará buen tiempo y los días serán largos. Y todo volverá a su sitio, y podremos volver a abrazar a la gente que queremos.

Te mandamos mucho ánimo y un fuerte abrazo, ¡Cuidate mucho!

También te mandamos uno de los dibujos que he hecho ahora que tengo más tiempo
Josu, Xabier, Garbiñe y Joseba



Egun on Matiazaleak,

Me llamo Ainara Diez, y junto a Eli acudía hasta hace bien poco a Matia cada jueves a las 17:00 para llevar a cabo el taller de pintura y escritura.

Debido a cuestiones laborales, tengo nuevo horario y desde hace unos meses no puedo ir 😊. mi compañera Eli me pone al día cada semana de las novedades del grupo de alumnos, pero dada la situación en la que nos encontramos, me gustaría dedicarles unas líneas con todo el cariño del mundo para que (a poder ser) de las transmitáis.

Queridos Angelita, Pepa, Juanillo, Manoli, Jose Mari, Izaskun, Carlos, Mirentxu, Pilar, Lourditas... como estáis? a través de estas líneas quería haceros llegar de alguna manera mi cariño hacia todo el grupo. Son ya muchos meses en los que no he podido acompañar a Eli en el taller de cada jueves (como ya sabéis por motivos laborales) pero no por ello he dejado de acordarme de vosotros; semanalmente Eli me pone al día de vuestras novedades y me hace muy muy feliz saber que todos seguís estupendamente al pie del cañón, asistiendo al taller y haciendo las tareas que Eli con cariño os encarga.

Mirentxu como vas las cuentas? que no me entere yo que te escaqueas eh!

Pilartxo, zemuz alabak? los nietos? el australiano? los pelos ahora que no hay pelu 😊? dales muchos recuerdos a tus hijas de mi parte eta beste muxu berezia zuretzako.

Juanillo, como va el nuevo super jardin? seguro que fenomenal con lo que tu te preocupas...

Angelita, que tal estas? que tal con las compañeras? espero que como siempre estupendamente.

Jose Mari, nola dabiltzate zure emaztea eta semeak? aupa Igueldo!

Manoli, arriba ese animo eh! que no me entere yo...

Izas, ya le haces caso a Eli y pintas? que te vigilo eh!

Lourditas tu madre que tal? recuerda hacer la escritura mas despacio para que a Eli le de tiempo a comprar cuadernos...

Carlos...aupa antiguotarrak!!!

como lleváis la situación? están siendo semanas difíciles para todos, y en especial supongo para todos los que no podéis recibir esas visitas semanales o asistir a talleres, pero pensar que esto pasará y es por vuestro bien...que no quiero ver a ninguno tosiendo o con gripe eh!

seguro que todo el personal de Matia está volcado en vosotros, en haceros estos días mas a menos con su cariño y atención así que recordarlo y darles las gracias y demostrarles todo el cariño a ellos también que la labor que realizan en esta etapa esta siendo de quitarse el sombrero.

Por mi parte sigo igual que siempre, confinada en mi pisito en el Antiguo, sigo con Joserra (aquel chico taaaan guapo que os presente 😊☐) y desde hace dos semanas trabajando ambos desde casa para no contribuir a la propagación de este virus que nos ha declarado la guerra.

Y no me enrolló más, os mando un beso y abrazo muy muy especiales a todos, con todo el cariño que sabéis que os tengo.

Cuando pase todo esto, prometo visitaros.

Muxu handi handi taldea!

Y a todo el personal de Matia, de igual manera, mandaros mucho ánimo por el esfuerzo que realizáis estando al pie del cañón cada día, enfrentándoos a esto.

Ainara

“

*Un sabio dijo: “Primero duele,
después te da rabia y termina
dándote risa, así se cierran las
etapas”.*

POEMA DE ALZHEIMER

No me pidas que me recuerde
No trates de hacerme comprender
Déjame descansar
Hazme saber que estás conmigo
Abraza mi cuello y toma mi mano
Estoy triste, enfermo y perdido
 Todo lo que se,
 Es que te necesito
No pierdas paciencia conmigo
No jures, no grites, no llores
No puedo hacer nada con lo que me ocurre
 Aun si trato de ser diferente,
 No lo logro
 Recuerda que te necesito
 Que lo mejor de mí ya partió
No me abandones, quédate a mi lado
 Ámame, hasta el fin de mi vida



COMO AMAR A LOS ADULTOS MAYORES

DÉJALO HABLAR... porque hay en su pasado un tesoro lleno de verdad, de belleza y de bien.

DÉJALO VENCER... en las discusiones, porque tiene necesidad de sentirse seguro de sí mismo.

DÉJALO IR A VISITAR... a sus viejos amigos, porque entre ellos se siente revivir.

DÉJALO CONTAR... sus historias repetidas, porque se siente feliz cuando lo escuchamos.

DÉJALO VIVIR... entre las cosas que ha amado, pues sufre sintiendo que le arrancamos pedazos de su vida.

DÉJALO GRITAR... cuando se ha equivocado, porque los ancianos como los niños tienen derecho a la comprensión.

DÉJALO VIAJAR... en el automóvil de la familia cuando van de vacaciones, porque el año próximo tendrás remordimientos de conciencia si "TU VIEJO" ya no existe más.

DÉJALO ENVEJECER... con el mismo paciente amor con que dejas crecer a tus hijos, porque todo es parte de la naturaleza.

DÉJALO REZAR... como él sabe, como él quiere, porque el adulto mayor descubre la presencia de DIOS en el camino que le falta recorrer.

Por favor... ¡déjalo ser!

Kaixo laguna,

Egia esanda ez dakit gutun hau nola hasi. Zu ni baino askoz gehiago bizi zara eta ziur nago aholku asko eman ahal dizkidazula kuarentena honetan. Baina niri ere zerbait esatea gustatuko litzaidake.

Hasteko, hau irakutzen ari bazara seinale ona da. Honek osasuntsu zaudela eta egunen batean, zorte apur batekin aste pare batzuetan, hainbeste maite dituzun horiek berriro ikusteko aukera izango duzula esan nahi du. Bitartean, lau pareren artean egotera behartuta zaude. Jakina, egoera hau ez da batere erraza, baina positibitateari eusten badiozu ikusiko duzu ze azkar amaituko den.

Normalean ez dut denborarik gauzak sakon pentsako. Orain, berriz, buruari bueltak emateko orduak soberan ditud eta pertsona nagusiak batzuetan behar bezala estimatzen ez genituela konturatu naiz. Aiton-amonak beti egon zarete hor bestek zaintzeko prest eta orain gure txanda heldu da. Bakarrik sentitzen zaren bakoitzean gogora ezazu hau zuen onurarako dela. Eskerrik asko egin duzuen guztiagatik!

Patri

Donostia, 2020ko apirilaren 1a

Kaixo, lagunok:

Azken egunotan bizi dugun egoera oso zaila da denontzat, baina ohitu behar dugu inguruabar berri honetara. Egunero kalera ateratzen ginenentzat, nahiko gogorra da egun osoa etxean geratzea. Hala ere, konturatu gara gauza anitz egin daitezkeela etxean ez aspertzeko.

Ama eta biok elkarrekin bizi gara, eta egun hauetan iloba gazteena etorri zaigu, gurasoak ospitalean gaixoak zaintzen ari direlako. Badakizuenez, osasun-langileak lan aparta eta arriskutsua egiten ari dira koronabirusa dela eta.

Ilobak zortzi urte ditu eta Paul izena du, oso azkarra eta alaia da. Goizero, berak eskolako lanak egiten ditu eta nik euskaltegiko lanak. Bazkaldu eta gero, mahai jokoetan aritzen gara amarekin batera. Gehien gustatzen zaigun jokoa “Donostia jokoa” da. Familia-joko dibertigarria da, Donostiako eguneroko jarduera islatzen duena, etxean helduekin eta hurrekin aritzeko. Jokalariak elkar eragiten dute, negozio eta saltoki historikoak eskuratzen saiatuz. Guztiz dibertigarria da, eta gaitasun espaziala eta orientazioaren zentzumena bultzatzen laguntzen du.

Amak, jokatu ondoren, (Paulek beti irabazten du, pixka bat tranpati da eta) telebista ikusten du. Sukaldaritzazalea denez, sukaldaritzarekin zerikusia duten saioak atsegin ditu, batez ere, La 2en ematen duten programa, “Les carnets de Julie” izenekoa.

Amak telebista ikusten duen bitartean, ilobak eta biok ariketa fisiko pixka bat egiten dugu giharrak sasoian mantentzeko. Horretaz gain, “bideokonferentzia” bidez egunero hitz egiten dugu Paulen gurasoekin harremanetan egoteko eta gorabeherak kontatzeko. Era berean, bizkotxoak eta pastak egin ditugu labean; oso gustora ibili da Paul eskuak orean sartuta.

Ikusten duzuenez, egiteko gauza asko daude etxetik atera gabe egun hauek ondo pasatzeko. Jakin ezazue birus hori joango dela, eta etxean geratzen bazarete, eta zintzoki agindutakoak betetzen badituzue, laster ibiliko zarete familiaz eta eguzkiaz gozatzen.

Animo eta eutsi goiari!
Besarkada handi bat,

Loreto.

Guraso maiteak:

Nola zaudete? Nahiz eta egunero telefonoz deitzen dizuedan, faltan botatzen dut aitaren musua edo amaren besarkada.

Nork esango zuen, orain bideokonferentzia zer den jakingo duzuela?

Polita da zuen aurpegiak ilusioz beteta ikustea, berriro haurrak bazinate bezala. Espero dut egoera hau laster bukatzea, berriro entzuteko Sara eta Telmaren barreak, jolasak eta txantxak. Aita berriro kalera irtetea, egunkariaren bila edo txakolina hartzera. Amak berriro ileapaindegira joatea, polit-polita egoteko. Eta denok elkar ikustea, hau amets arraroa izango balitz bezala. Hau da nire nahia.

Egunon, Arratsaldeon edo Gabon,

Ez dakit noiz irakurriko duzun hau, baina edozein momentua ona izango da. Badakit egoera ez dela alai egoteko, baina irribarreak behar ditugu.

Askotan, galdetzen dut neure buruari zer nagoen egiten lau pareren artean giltzapetuta. Baina egia da beharrezkoa dela, ezin gara kalera atera, arraroa ezta? Hau eskatu digute, batez ere geure medikuei eta ospitalean egunero lan egiten daudenei gauzak errezagotzeko.

Beno ez naiz gehiago enroiatzen, hona ez nator egoerari buruz hitz egitera, baizik eta zu animatzera. Animoak gora, honetatik aterako gara eta harro sentituko gara.

Beraz, espero dut zuri irribarre bat atera izana. Besterik gabe, mila muxu bidaltzen dizkizut eta besarkada handi bat.

Asperdura igarotzeko, nirekin hitz egitea behar baduzu, hau da nire email-a. Adi egongo naiz.

Animo txapelduna!

Eider

Santurtzin, 2020ko apirilaren 1ean

Kaixo!

Hasteko, gustatuko litzaidake neure burua aurkeztea. Baina, mesedez, ez irakurri 19:50ak arte. Pako, zuk bai. Pako euskaltegiko irakaslea da, eta zuri bidali baino lehen, bidali diot gutuna ea akatsik ez ote dudan.... Benga, Gork, harira! Gorka Martín naiz. Santurziarra. Aktorea. Arte dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskolan egiten dut lan, teknologia eta espazio eszeniko irakaslea naiz. Eta goizero, goizero HABEn bezero, Oskorriren kantak dionez, ea aurten atera daiteken C1eko tituloa. Gaur, korreoz jaso dugu euskaltegiko etxerako lanak, eta ariketa horietan bertan, gaur, gure eguneko tarte bat zuekin partekatzen animatzen gintuzten gutun baten bidez. Beraz, asteazkenero egiten dugun klaustroa bukatu eta gero, bideokonferentziaz noski, lerro batzuk idatziko dizkizut.

Hamar urtez biran ibili nintzen lanean, eta banekien negua elurrarekin batera iristen zenean, denbora eta planak klimatologiaren menpe egongo zirela. Gogora etortzen zait emanaldi bat egitera joan ginela Jakara. Eta bai, iritsi ginen eta egin genuen, baina beste hiru egun behar izan genituen itzultzeko. Hura bai elurtea! Gainera, Santurtzin elurrik apenas egiten duenez, leihotik begiratzu egun osoan.

Nire amamak beti esaten du dagoeneko ez duela lehen egiten zuen bezala elurra botatzen. Esaten du bere herrixkan elurra egiten zuenean elurrarekin bat zetorrela isiltasuna ere, ondorioz, beti lotzen dugula zuria eta isiltasuna. Ez musikagatik, baizik eta elurragatik. Ematen du elurra egiten duenean egun batzuk pasatu zituztela etxetik irten barik. Eta horrela igaro ziren asteak, etxean eta supermerkatuak gabe. Baina beti, egunen batetik aurrera, udaberria esnatzen zen eta eguzkia berotzen hasten zen. Orduan, ikusten ziren zuhaitz-begiak irteten. Hori da meteorologiaren alde ona, beti iristen den udaberria.

Laburbilduz, konfinamendu egun hauek eta zuen haurtzaro elurte egunak, antza handia daukate. Izan ere, isiltasunaren garaia eta leihotik begiratzeko denbora pasatzen denean, zuhaitzek hosto berriak izan arren, kalean gauzak egongo dira egiteko. Entzuten dituzu txalo horiek? Leihotik, bai! Leihotik guztiak ireki daitezela isiltasuna hautsi berri delako. Txalo horiek eta zuhaitzen hosto berriak esaten dute gutxiago geratzen dela lagunekin txantxetan ibiltzeko. Benetan. Zin dagizut!

Gorka Martín

Kaixo, maitia:

Zer moldatzen zara berrogeialdiatik etxean geratzearekin?

Ni egunero lanera joaten naizen arren, aspertzen hasia naiz, egun asko baitira.

Nik kontatuko dizut berrogeialdian egiten dudana.

Ni Pediatra naiz eta osasun zentroan lan egiten dut. Gero, etxean euskaltegiako etxerako lanak egiten ditut. Normalean, euskaltegiara astelehenetik ostegunera bi ordu eta erdi egunero joaten naiz. Pizka bat gogorra da, hala ere, ikaskideak eta irakaslea oso jatorrak dira eta klaseak oso dibertigarriak dira. Horrez gain, hizkuntzak asko gustatzen zaizkit eta euskara hizkuntza zaila bada ere, polita iruditzen zait. Orain, online klaseak aspergarriagoak dira, baina, batzuetan, ariketak bideo-deien bidez egiten ditugu, eta eramangarriagoa da.

Ondoren, ariketak amaitu ditudanean, kirola egiten dut nire bikotearekin. Gimnasio txiki bat muntatu dugu etxean, eta youtubeko bideoekin ariketak egiten ditugu. Gainera, niri dantzatzea izugarri gustatzen zait eta astean bi aldiz zumba egiten dut. Asteburuetan, gauza desberdinak egiten saiatzen gara. Eguraldi ona egiten badu, denbora asko emango dugu terrazan: afaldu, bazkaldu, mahai-jokoetan jolastu...

Etixerako lanak egiten, adibidez garbitzen eta antolatzen, ere aprobetxatzen dugu. Musikaren erritmoan egiten baduzu, dibertigarria izan daiteke!

Otordu landuagoak ere prestatzen ditugu: patatak errioxa erara, babarrunak, olagarroa patatekin, otarrainxkak, barazki-paella, arraina labean, janari mexikarra, pastelak... beti errioxako ardo on batekin (Errioxakoa bainaiz!).

Filmak eta serieak ikusten denbora pasatzen dugu ere bai, niri thrillerra gehiagu gustatzen zaizkit baina nire mutilari akziozkoak.

Horrez gain, urrundu bizi diren gure lagunekin behin edo bi aldiz astean bideo deia antolatzen dugu eta hitz egin garagardo bat hartu bitartean. Eta, jakina, egunero harremana familiarekin mantentzen dut, batzuetan amarekin egon naiteke telefonoan ordubete baino gehiagoz!

Bestetik, datorren ekainean ezkonduko naiz eta eztei dantza prestatzen ari gara. Barre asko egiten dut nire mutil-laguna deskoordinatua baita!

Beno, espero dut denbora-pasa egin izana.

Besarkada handi bat,

Tamara

Kaixo!

Nik argi daukat, etxean geratuko naiz! Eta zuengatik, are gehiago!
Ene etxeko pareten artean familiarekin pasako ditut pasa beharreko adina ordu, egun eta aste. Zuengatik. Denongatik.

Nire ustetan, zuek izan zarete gaur egun dauzkagun abantaila, aurrerapen eta aberastasun guztien bultzatzaile eta ekoizleak. Bizitza osoan erakutsi duzuen indarra eta ekimenagatik, egiten ari garen ahalegin honek pena merezi izango du, ziur nago.

Oraingo momentu hau historikoa da. Zuen garaietan sufritu izan dituzuen bizipen gogorak eta miseriak nolabait antzemateko, gazteontzako une aproposa da. Konturatu behar gara gaur egun gauza gehiegirekin bizi garela. Eta beharrezkoak suertatzen ez direnak, alegia. Modu sinpleagoan bizi daitekeela ohartarazteko momentu egokia da hau. Zuek egin zenuten moduan. Zuen ereduari jarraituz.

Horregatik hain da garrantzitsua zuek zaintzea une larri hauetan, behar zaituztegunako, eta maite zaituztegunako. Zuek gabe, ezer gutxi gara eta. Zuek gabe, gure iraganaren zati handia desagertzen da eta.

Bai, orain teknologiak ditugu, modu batean edo bestean gauzak errazten dizkigutenak, edota gure entretenimendurako balio dutenak, baina horrek ezer gutxirako balio du. Ezustean, denon egunerokotasuna erradikalki aldatu egin da, eta hausnarketa sakonetan murgiltzen gara.

Bat-batean gure askatasunaren zati handi bat kendu digute. Bat-batean bakardadearekin dantzan egitea tokatzen zaigu nohizean behin. Bat-batean hain hurbil eta hain urrun ditugun senide eta adiskideak inoiz baino gehiago botatzen ditugu faltan.

Bat-batean, benetan gauza baliotsuenak, betidanik hurbilean izan ditugunak dira; elkarrizketak, besarkadak, ferekak, begiradak... MAITASUNA!

Hori berreskuratzeko, denon artean borrokatuko dugu, zin dagizuet!
Gora bihotzak eta eutsi goiari!

Iker

Kaixo gazteok!

Ez dizuet galdetuko zelan daramazuen isolamendua erantzuna imajinatu dezakedalako, nik kokoteraino nago Coronavirus deitu duten birus honen erruagatik etxetik irten gabe egoteaz ere. Dena den, denboraldi hau ziur nago, neuk bezala, denbora izan duzuela zuen gauzetan pentsatzeko eta gogoratzen ez zenituzten oroimen asko izateko. Hori oso polita da, gainera, zuek denbora asko daramazue mundu honetan, eta nik 23 urte izanda milaka pasadizo dibertigarri baditut buruan, zuek askoz gehiago izango dituzue. Orduak eta orduak emango dituzue bata besteari kontatzen... zelako inbidia!

Dena den, laster hiru aste izango daramatzagu isolaturik eta badakit luzea egiten dela baina gauza asko egin ditzakezue entretenitzeko. Kokoteraino egongo zarete mahaiko jokoetara jolasteaz, baina egia esan nik kartetan edo partxisean oso ondo pasatzen dut eta denbora oso azkar pasatzen zait. Beraz nire eguneroko plana kontatuko dizuet ideia batzuk jaso ditzazuen isolamenduan zehar denbora basatzeko.

Hasteko, goizeko 9:00etan ohetik jaikitzen naiz. Nik bi txakur ditut eta jaiki bezain laster haiekin paseo bat ematen dut. Paseotik etxera bueltatzen naizenean, gosari goxo-goxoa prestatzen dut eta 10:00ak arte nago gosaltzen. Gosaltzen bukatzen dudanean euskaltegiko klaseekin hasten naiz (etxetik noski), normalean ariketa batzuk egiten ditugu, idazlan bi astero eta zenbait albiste irakurri edo entzuten dugu bideodeien bidez ikasleon artean elkarri kontatzeko. Euskaltegiko klaseekin bukatzean, bazkaria prestatu eta txakurrei beste paseo bat ematen diet eta paseotik etxera heltzean bazkaltzen dut. Ikusi dezakezuen ez goiz osoa gauzak egiten ematen ditut, beraz, nahiko motxak egiten zait.

Jarraitzeko, bazkaldu ostean siesta botatzen saiatzen naiz baina normalean ez dut lortzen. Hori bai, sofan etzanda digestioa egiten pare bat ordu ematen ditut teleaioren bat ikusten. Gaur egun, oso entretenigarriak diren teleaio ugari daude telebistan orduro. Gero, erosketarik egin behar badut supermerkatua noa, baina arratsaldeko 18:30tan kirola egiten dut. Kirola isolamenduan zehar egitea oso ondo datorkigu, alde batetik denbora azkar pasatzen zaigulako, eta beste aldetik asko nekutzen garelako eta lo egitea errazten gaituelako. Egia esan, arratsaldea luzeagoak egiten zait, baina gauzak egiten ematen dut

Amaitzeko, txakurrei eguneko hirugarren, eta azken, paseoa ematen diet, afaria prestatu eta afaltzen dut. Ostean telebista ikusten dut logura izan arte, eta lotara joaten naiz.

Ikusi dezakezuenetz gauza ugari egin ditzakegu denboraldi hau eramangarriagoa egiteko. Gero eta denbora gutxiago geratzen zaigu etxean, anima gaitezen laster guztiok kalera aterako gara Coronavirusari guda irabazi diogula ospatzera!

Besarkada handi bat guztioi eta zaindu zaitetzte!

Adrian

Kaixo guztioi,

Nire izena Olaia da eta Matia Fundazioaren mezua jasoz gero, oso ideia polita dela pentsatu dut. Ni Algortan bizi naiz, eta berrogeialdia pasatzen ari naiz nire bikotekidearekin. Nahiz eta denetarik eduki, batzuetan asko aspertzen gara, etxean egoten ez baikara ohituta. Imajina dezaket zuek ere nolabait aspertuta egongo zaretela eta horregatik idazten dizuet eskutitz hau, minutu batzuk pasa ditzazuen.

Egun osoan zehar nire katua Ulma leku batetik bestera doa korrika, guk egun osoa etxean egoteagatik oso positiboki dabilako. Bera da egoera hau gehien gozatzen ari dena. Ni momentuz langabezian nago eta egunak ematen ditut erlaxatzen, irakurtzen eta margotzen. Ikasle baten bezalako oporrak edukitzen ari naiz eta ondo datozkit erritmoa lasaitzeko.

Uste dut gure gizarteak jada ez dakiela nola erlaxatu. Agian birus honek bitzitza lasaiago bat edukitzen erakutsiko digu eta zerbait positiboa aterako dugula esperientziatik. Pazientzia eduki behar dugu.

Espero dut zuek ondo egotea. Gaur egungo egoera adinakoentzat oso larria eta zaila da eta imajinatzen dut oso egun konplikatua edukitzen ari zaretela. Zuek bai zarete txapeldunak! Animo asko eta besarkada bat bidali nahi dizuet gutun honen bidez.

Zaindu asko.

Olaia.

Kaixo lagunok,

Badakit lau pareten artean egotea ia 2 hilabete ez dela gustoko gauza bat inorentzat, naguisientzat ere ez. Nire amona, adibidez, koarentenan ez geundenean beti ateratzen zen kaleara, ibiltzeara edo bere lagunekin eserita egotera. Kanean egotea maite du. Eta orain etxean giltzapean, beitu zer egoera txarra!

Horregatik pentsatzen zure egoeraz, bururatu zaizkit egin ditzakezuen gauza batzuk, ez aspertzeko gauzak.

- Ariketa fisikoa (hau oso garrantzitsua da!!): Egin ahal ditzakezue besoetako estiramenduak, yoga postura batzuk, edo bakarrik etxetik ibili irratiarekin. Nik beti egiten dudana gauza bat da nire logelan musika oso altua ipini eta dantza egin nekatu arte. Beraz, ya badakizue! Mucedades ipini eta eman daukazuen osoa dantza pistan!! Hala ere, hemen uzten dizuet link bat egin ditzakezuen ariketa fisiko batzeuekin: <https://youtu.be/gotg1hcqB9I>

-Sukaldatu: Badakit amonek oso ondo egiten duzuela (niri oso txarto ateratzen zaizkit platerrak), baina hau momentua da aitona ere ikasteko! Eta badakizuenok, erresidentzian zeudetenok egin dezakezue bizkotxo bat guztion artean edo edozein errezeta bakarrik barrengatik. Berriz, bakarrik bizi zaudetenok, saia dezakezue gauza berri batzuekin, hala nola cupcake; hemen utziko dizuet linka: <https://youtu.be/dRo4hz4VdUw>

Espero dut ideia hauek zuentzat erabilgarriak izatea kuarentena hau hobeto pasatzeko eta ez aspertzeko egun batzuk geratzen baitzaizkigu gure etxeetan.

Besarkada handi bat eta zaindu asko!

Sheila.

Donostian, martxoaren 31n

Kaixo, jaun / andre hori:

Nire izena Adriana da, eta euskaltegian zuei gutun bat idaztea proposatu digute. Oso ideia ona dela uste dut, eta gainera oso berezia da niretzat, hauxe izango baita nire lehenengo benetako gutuna euskaraz. Gustatuko zaizuela espero dut!

Ni donostiarra naiz, eta Aieten bizi naiz. Orain, denak bezala, etxean geratu behar dut, koronabirusarengatik. Lanik gabe nago, beraz, egun osoa nago etxean. Lehenengo egunetan zaila izan zen egoera berria onartzea eta etxean geratzea, baina orain ohituta nago. Egunero egiten dut kirola goizetan, Interneten edo telebistaren bidez, eta besoak eta hankak mugitzen ditut. Bazkaria ere egunero prestatzen dut; nahiz eta oso sukaldari ona ez izan. Ordenagailuaren aurrean pasatzen ditut arratsaldeak, euskara ikasten, argazkiak edo Facebook-en begiratzen, lagunekin hitz egiten, eta horrela

afaltzeko ordua iritsi arte. Gauean telebista ikusten dut, edozein saio edo film bat. Adibidez, "Zazpi bikainak" eta "Zazpi samuraiak" filmak ikusi ditut.

Eta jakina, nire familiarekin eta lagunekin hitz egiten dut egunero telefonoz eta Interneten bidez. Hori da eguneko gauzarik onena.

Eta zuk, nola egiten dituzu egunak arinago? Espero dut ez zarela gehiegi aspertuko, eta ondo egongo zarela.

Agur bero bat,
Adriana

Hola, buenos días, buenas tardes, buenas noches!

Imagino que se te hará larga la estancia, pero ánimo, ya te queda un poco menos que ayer...

Me llamo Josefina, quería decirte que no estás sólo o sola, hay mucha gente pensando en ti, dedicándote su cariño en la lejanía, incluso sus oraciones...

Qué suerte poder acompañarte un rato ahora. Se me dan mal los chistes, pero para que empieces con una sonrisa, te cuento éste de médicos: "Doctor, estoy fatal, veo elefantes azules por todos los rincones". .-"¿Ya ha visto usted a algún psiquiatra?" .-"No, de momento sólo elefantes..."

Es que... ¿sabes? Tengo alguna amiga enfermera y, como sólo les podéis ver los ojos con tanto artilugio, le decía: cuando cuides a éste, a ésta, tienes que decirle que, debajo de esa mascarilla, tienes una sonrisa de oreja a oreja. Que ofreces todo tu cansancio, toda tu ilusión para poder verle pronto en pie, saliendo de regreso a su casa y a su familia contento. Bueno, tú pone el "o" ó el "a" como convenga.

Cada día puedes dejar volar tu imaginación y trasladarte a lugares lejanos, donde tal vez no hayas estado más que... delante del televisor. Con la mente puedes acercarte a tu familia, llenarles de abrazos, de ánimo, decirles que cuenten que tú vas a darlo todo y que tienes ya ganas de verlos, de darles un abrazo fuerte.

Fortaleza, eso vas a ganar con estos días de prueba, ¡campeón!, no estás sólo. Toda la afición contigo. No imaginas cómo se está espabilando todo el mundo para colaborar del modo que pueda, haciendo de todo. Y digo que vas a ganar, porque te estás haciendo fuerte. Cada vez que respiras es un paso menos hacia la curación. No sufras por quienes te quieren. Al contrario, apóyate en su fortaleza, como la fortaleza de los naipes: cada uno es una carta de papel, pero apoyada en otra –igual de débil que la anterior- se van formando esos castillos de naipes que se hacen grandes por la ayuda de todos.

No quiero cansarte, hoy está bien para empezar. Te recomiendo que, si no has visto la película de James Stewart “¡Qué bello es vivir!”, la veas en tu casa a la vuelta. Un buen hombre que está a punto de arrojar la toalla cuando se ve en la quiebra total y, cuando está a punto de rendirse aparece un personaje –no te digo quién para que te apetezca más verla- que le hace ver cómo hubiera sido el mundo si él no hubiera existido... Todos somos imprescindibles en esta gran familia, te echamos de menos, queremos que te recuperes y nos des la alegría de poder saberte pronto en casa. Tu casa. La de todos, porque en estos momentos somos una gran familia unida.

Un abrazo cariñoso y lleno de esperanza,

Josefina

Espinosa de los Monteros, 2020ko apirilaren 2an

Kaixo, lagunok!

Zelan zaudete? Oso ondo espero dut. Ni Pilar naiz eta 26 urte ditut. Bilbon bizi naiz nire guraso, neba-arreba txikiak eta txakurrekin. Gu 5 neba-arreba gara, mutil bat eta lau neskek. Nire ahizpa nagusiak ez dira etxean bizi.

Kazetaritza ikasi dut eta Onda Cero Euskadi irratian praktikak egin nituen. Amaitu nuenean, oso triste geratu nintzen, oso pozik bainengoen eta nire lankideak oso jatorrak zirenlako. Orain, lana bilatzen ari naiz eta, bitartean, astelehenatik ostegunetara euskara ikasten dut Ulibarri euskaltegian. Baina, oraintxe bertan, ezin dut euskaltegira joan berrogeialdian baikaude.

Gaur egun, ni ez nago Bilbon. Ni, nire guraso, neba-arreba txikiak eta txakurrak herrian gaude. Espinosa de los Monteros da eta Burgos Iparraldean dago. Hemen nire gurasoak hotel-jatetxe bat duaka eta hemen lo egiten ari gara. Hementxe, onfinamendu pasatzea erraza da, espazio asko baitauekagu: lorategia, 3 pisu eta bakoitzak bere espazioa du.

Egunero, bederatzietan jaikitzen naiz eta nire familiari gosaria prestatzen diot nire aitarekin. Gero, etxekolanak egiten dugu nire amarekin jartzen du. Bazkaria ondoren, elkarrekin siesta bat hartzen dugu eta geroago, nire gurasoak txakurra ateratzen dituzte. Halaber, arratsaldero, monopoly eta Wii jolasten gara. Monopoly mahai-jokoa da eta oso interesagarria da. Wii gehiago jolastea gustatzen zait dibertigarriagoa delako. Hau bideokonsola da eta tenis, saskibaloia, pin-pon eta just dance gehien jolasten ditugun jolasak dira.

Espinosan oso ondo nago, baina nire euskaltegiko lagunak faltan botatzen ditut. Hau askar amaitzea espero dut.

Musu asko eta ondo ibili

Pilar

Santurtzin, 2020ko apirilean 1ean

Koronabirusak gure bizitza astintzeaz batera, dena hankaz gora utzi du. Nola sentitzen naizen adierazteko hitz bat bilatu beharko nuke, zaila egingo litzaidake bat besterik ez aukeratzea. Batzuetan, triste; beste batzuetan, hunkituta; eta, oro har, arraro. Ez da harritzekoa! Orain dela hiru astera arte unibertsoari denbora eskatzen nion: astia gelditzeko eta aire pixka bat hartzeko. Eta, zorionez, batzuetan unibertsoari eskatzen diozuna ematen dizunez, denboraldi hau oparitu dit berrogeialdi batean bilduta egoteko familiarekin.

Berrogeialdi honetan buruak azkar-azkar funtzionatzen du: oroipen, hausnarketa eta galdera makina bat etortzen zaizkit burura. Eta buruan, etengabe, iragana eta etorkizuna joan eta etortzen dira euren kabuz. Momentu batean aurreko hilabetean zer egiten ari nintzen gogoratzen dut; eta hurrengoan konfinamendua amaitu ondoren, zer gertatuko denari buruz hipotesi ugari bururatzen zaizkit. Arraroa da oso.

Saski-naski horren erdian, gaur goizean janaria prestatzen nengoen bitartean, irratan ahots ezta entzun dut. Amama Felisaren ahotsa. Matiko egoitza hitz egin du. Gaur bere urtebetetzea izan da, eta alabak deitu dio zoriontzeko asmoz. Ehun urte bete ditu! Kontatu du koronabirusa dela eta ezin dutela kartetan jokatu. Beraz, bazkaldu eta gero, lo-kuluxka egingo duela. Nahiz eta alaba ezin ikusi, poz-pez zegoen urtebetetzea ospatuko baitzuten tarta janez. Izan ere, gerra, gerraoste, bizitza osoa, eta orain pandemia bizitzen ari da. Hala eta guztiz ere, ez zuen inolako zalantzarik borrokatzen jarraituko duela.

Hamaika Felisa daude Euskal Herriko egoitzetan barreiatuak. Eta garai zail honetan gure aitona-amonak zaurgarrienak diren arren, bizitzeko gogo eta aldarte ona ez dituzte galtzen. Hori dela eta, gure erreferentia izateagatik, eta beste hamaika gauza batengatik zeuk ere errekonozimendua merezi duzue. Nire gaurko txaloak zuentzat dira!

Besarkada birtual handi bat,

Izaskun

Zarauz, 2020ko martxoaren 27an

Kaixo !!

Zer moduz zaudete? Bizitzen ari garen egoera kontuan izanik, ondo egongo zaretela espero dut eta halaxe jarraitzeko indarra bidali nahi dizuet, umorearekin egunari aurre egiten!

Zuetariko askok ezagutuko duzuen herri batetik idazten dizuet: Zarautz. Noiz edo noiz

bertan pasian ibilitakoak izango zarete, bazkari goxo bat jaten, erosketak egiten, hondartzan eguzkia hartzen edota itsasoan freskatzen. Berriz ere egingo ditugu halakoak eta orain arte sekula egin ez ditugunak ere. Zergatik ez!

Duela egun batzuk, auzoan akats elektriko bat izan zen eta argindarrik gabe gelditu ginen goizetik iluntzera. Zorionez konpondu zuten eta susto txiki batean gelditu zen dena baina zer pentsatu eman zidan egoera hark. Nola sukaldatu behar genuen? Linternarik ba al dugu? Bateriak kargatuta al ditugu? Prestatuta al gaude egoera hau argindarrik gabe pasatzeko? Ez. Ordu batzuk izan ziren eta moldatu ginen baina ziur nago zuetariko askori barregura sortaraziko dizuela kontaturikoak egoera gogorragoetan hazitakoak izango baitzarete!

Guztiok ikasiko dugu zerbait bizitzen ari garen egoera honetatik eta guztiok izango dugu nori eskertu egoera hau samurrago pasatzeko egiten duten ahaleginatik. Familia eta lagunak laister besarkatu eta musukatuko ditugu eta egun horretarako egun bat gutxiago falta dela pentsatzen, jaso ezazue besarkada handi bat.

Leire

Querido amigo,
¿Cómo estás?

Antes de empezar, quería darte las gracias por tomar tiempo de tu vida para leerme. Te escribo esta carta para decirte que, aunque no nos conocemos, pienso en ti.

Espero que te encuentres bien en estos momentos tan diferentes. Digo diferentes porque las vivencias de cada persona varían tanto... Hay personas que en esta situación en la que nos encontramos se sienten tristes, otras personas se sienten perdidas, otras disfrutando del momento, otras enfadadas, otras se sienten solas... Incluso el mismo día podemos experimentar todo tipo de emociones... ¿Cómo te sientes tu? ¿Cómo se encuentra tu interior?

Cada emoción que surge en nuestro cuerpo, aunque a veces sea incómodo o no nos guste, nos quiere decir algo, nos está dando una información sobre nosotros mismos. Muchas veces nos cuesta verlo, pero las emociones son un regalo de aprendizaje, un regalo de que seguimos vivos. Podemos aprovechar estos momentos para mirar hacia dentro, y para reencontrarnos con nosotros mismos un poquito más, poco a poco. Al terminar el día me gusta pensar, ¿qué he aprendido hoy?

Te quiero decir que sean cuales sean las emociones que sientas en este día a día, estoy aquí, a tu lado, para acompañarte y apoyarte en lo que necesites. No podemos vernos pero podemos sentirnos, pensarnos y acompañarnos. La historia vital de cada persona es única, y por ser única, es valiosa. Tu historia, tu vida, es única y es valiosa.

Me despido con este poema de Mario Benedetti:

“Cada existencia tiene sus vaivenes, que es como decir sus pormenores.
El tiempo es como el viento, empuja y genera cambios.
De pronto nos sentimos prisioneros de una circunstancia que no buscamos sino que nos buscó.
Y para liberarnos de esa gayola es imprescindible pensar y sentir hacia adentro,
Con una suerte de taladro llamado meditación.
De pormenor en pormenor vamos descubriendo el exterior y la intimidad,
Digamos el milímetro de universo que nos tocó en suerte.
Y sólo entonces, cuando encontramos al muchacho o al vejestorio que lleva nuestro nombre,
Solo entonces los pormenores suelen convertirse en pormayores.”

Hasta pronto.

Bilbon, 2020ko apirilaren 5ean

Kaixo, lagunok!

Euskaltegiko irakasle batek Matia Fundazioaren mezua bidali digu eta oso ideia ona iruditu zait egitea gauden konfinamendua ahalik eta hoberen pasatzeko. Gainera, zuek inork baino hobeto dakizue nolako den egoera hau pasatzea zuen bizipenak denetarikoak izan direlako. Nik Coronavirus-a heldu denetik nire aitona - amonak ikusi ezinean nago eta lehenengo momentu batean triste nengoen. Baina, badakizue zer animatzen nauen? Haiek, zuek bezala, txikitatik daukaten guztia lortzeko borrokatu dutela denetako bizipenak izan arren. Gainera, egunero telefonoz deitzen didate eta kontatzen didate nola eramaten duten etxean egotea eta zer egiten duten denbora ahalik eta hobeto pasatzeko.

Dena den, nik ere kontatzen diet egiten dudana guztia. Haiek horrela entretenitzen dira eta pozik geratzen dira nire ahotsa entzunda. Horregatik zuei ere kontatuko dizuet egiten dudana, zuek ere entretenitzeko. Lehenik eta behin, goiz - goiz altxatzen naiz untxitxo bat daukadalako eta bere lekua garbitu eta zaindu behar dudalako. Ez dakizue zein bihurri den nire untxia! Baina oso pozik jartzen da nik ikustean eta niri hori poza sortzen dit. Poku du izena, eta nire neba etortzen zait burura askotan bera ikustean, berak untxia oparitu zidalako eta izen hori jartzen lagundu zidalako.

Ondoren, lan telematikoa egin behar dut. Nik eskoletan eskolaz kanpoko ekintzak ematen ditut eta orain interneten bidez emateko beharra daukat. Pozaren pozaz egiten dut baina gustatuko litzaidake eskolan haiekin egotea oso ondo pasatzen dudalako haiekin eta pila bat maite ditudalako. Horregatik, egiten dudana lana maite dut eta ez zait batere kostatzen egitea. Horrez gain, arratsaldeetan praktikak egiten nago aterpetxe sozial batean. Hori bai lan gogorra! Gustatzen zait lan hori, bestela ez nuke ikasiko. Baina, ez dut ulertzen nola gazteenak ez duten errespetatzen gauden egoera eta ihes egiten dute.

Nolanahi ere, euskaltegiko lana egiten dut interneten bidez. Asteburuetan

aprobetxatu behar dut bidalitako lana egiteko. Honekin nahiko atzetzen naiz mundutik eta gainera behar dudan titulua lortzen laguntzen dit. Gutun hau idaztea etxerako lan bat bezala proposatu zidatenean asko poztu zitzaidan niri asko gustatzen zaidalako adineko pertsonekin egotea eta nire gauzez hitz egitea.

Musu eta besarkada handi bat bidaltzen dizuet bihotz bihotzez!

Mari

2020ko apirilak 3

Kaixo, lagunok!

Denok dakigunez, tamalez, oraintxe bizi behar dugun egoera, bizi baldintza berriak aurkeztu dizkigu. Izan ere, asko gara egun osoa etxean igaro behar izaten dugunok, batzuk kalera irteteko aukera daukaten arren, lan egin behar dutelako.

Horregatik, geure denbora libreareagotu da eta, hortaz, normalean egiten ez ditugun ekintzak egiteko abagunea daukagu egun hauetan. Pertsona ugari beste pertsona batzuekin pasatzen ari gara egun hauek, bai gurasoekin, bai bikotearekin. Alabaina, zoritxarrez, badaude beste pertsona batzuk bakarrik daudenak. Oro har, pertsona horiek zahartzaroan dauden pertsonak dira.

Hori dela eta, Matia fundazioak sortutako ekimenaz ohartu nintzenean, berehala pentsatu nuen aukera ezin hobea zela adineko pertsonak animatzeko edo entretenitzeko, besteak beste.

Alex nauzue, 23 urteko mutila. Bilbon bizi naiz, eta hortik idazten egon beharko nintzateke, haatik, baldintza ezberdin batzuk direla bide, Kanariar Uharteetan nago berrogeialdia pasatzen. Zehatzago esanda, El Hierron. Hots, Euskal Herritik hurrunen dagoen uhartean. Hamar mila biztanleko uharte batean, pixka bat mundutik isolatuta.

Hori guztia aintzat hartuta, eman dezake gogoz kontra nagoela hemen, baina guztiz kontrakoa. Izan ere, arestian esan dudan bezala, isolatuta nagoen aldetik, uste dut ez naizela erabat kontziente bizi dugun egoeraz, eta, horren ondorioz, horrela hobeto bizi naizelakoan nago. Gainera, hemen oso Koronabirus kasu gutxi daude, nonbait. Beraz, lasaiago gabilta.

Dakizueenez, egunak luzeak egiten dira, eta badirudi egun guztiak berdinak direla.

Hala eta guztiz ere, egunak egoera hobe batean igarotzeko konponbideak bilatu behar ditugu. Esate baterako, nire ustez, aukera oso baliotsua da gutxiago hitz egin ohi genuen pertsonekin harremanak berriro sendotze aldera. Baina, esan gabe doa hori teknologia berrien bidez egin beharko dugula. Badakit, zuen belaunaldikoentzat, hori ez dela batere erraza egiten, baina ziur nago, saiatzekotan, ez duzuela arazorik izango. Izan ere, ematen duen baino askoz errazagoa da tresna horien erabilera. Ildo beretik, betidanik ikasi nahi izan dugun hizkuntza ikasteko aukera ere badugu. Horren hariari jarraituz, errezeta berriak {kozinatzeko} eta plater berriak dastatzeko ere erabil ditzakegu egun hauek.

Amaitzeko, adore ematea gustatuko litzaidake bakarrik zaudeten pertsona guztiei. Ziur

nago, historikoki bizi behar izan dituzuen egoeren erruz edo, hobeto esanda, egoerei esker, jakingo duzuela egun hauek nola igaro. Zalantzarik gabe, egoera latz hau guztion artean gaituzko dugu eta sendoago aterako gara egoera honetatik.

Besarkada handi bat,

Alex

Gasteiz, 2020ko apirilaren 6a

Kaixo, lagunok!

Idazle ez garenontzat normalean jesarri eta eskutitz bat idazteak nagia ematen digu, baina gutun hau bestelakoa da, gutun hau omenaldi bat da: niretzat, behinik behin, zuek guztiak heroi anonimoak zarete, ez bai izpirik gabe.

Bizitza osoa gogor lan egin zenuten: etxean, baserrian, lantegian, itsasoan, negozioan, erietxean, eskoletan... Lanak izan zenituzten familia aurrera ateratzeko.

Etxeko andreak, zer meritu handia daukazuen, umeak hazten, etxeko eginkizun guztiak egiten eta beti lehen lerroan familia osoa zaintzen. Borrokalari hutsak zarete.

Baserritarrak, goizean goizetik gauera lursailak lantzen eta etxabereak zaintzen zenituzten. 365 eguneko ogibide gogorra izan da beti.

Lantegi edo tailer batean lan egiten zenutenak beti lehen lerroan egon zineten dena emanek. Txandaka askotan, baina beti jo eta su aritu zineten lanean.

Autonomoek eta enpresaburuek kasu batzuetan hutsetik enpresak sortu zenituzten, besteetan familiaren negozioa jarraitu zenuten. Gure lurralderako lanpostuak eta ondasuna sortzen zenituzten kosta ahala kosta, eta krisiak gorabehera beti aurrera begira.

Arrantzaleak denbora luze egoten zineten herritik urruti, etxetik urruti, familiarengandik urruti, baina beti lana ganoraz egiten.

Osasun- langileek beti eriak irribarre zabal batekin artatzen eta zaintzen zenituzten.

Maisuek eta irakasleek hurrengo belaunaldiei ardura handiz irakasten zenieten

Zuetako batzuek atzerrira joan behar izan zenuten lan bila: Frantziara, Alemaniara, Suitzara, Estatu Batuetara, Hego Amerikara... Arrotzak zineten beste herrialde batean, eta ohitura eta hezkuntza berriak ikasi behar izan zenituzten. Asko kanpoan apaltasunez bizi zineten dirua etxera bidaltzeko.

Esan gabe doa gainerako langile guztiak ere funtsekoak zinetela eta zaretela gure gizartean.

Une latzenetan bizi gara koronabirusagatik, baina gauza bat etengabe pentsatu behar dugu: beti legez, lortuko dugu, eta denon artean birusa irabaziko dugu. Itxialdia deserosoa eta gogaikarria da guztiontzat, argi dago, baina denbora aprobeztatu ahal dugu gauza askotarako. Esate baterako, denok daukagu liburu berezi bat sekula irakurri ez duguna, eta beti irakurri nahi izan duguna. Ze une hoberik hori egiteko! Filmekin gauza bera jazotzen da. Adibidez, ni beti "Casablanca" pelikula ikusi nahi izan dut, eta pasa den astean telebista piztu, plataforma batean bilatu eta ikusi nuen. Zein film galanta! Sasoiaren egon nahi badugu, mugikorra hartu dezakegu, eta sarean makina bat bideo ikus ditzakegu ariketa desberdinak egiteko. Burua okupatuta izan behar dugu, eta denetarik egin behar dugu. Hain zuzen ere, hortxe dago koska, lagunok.

Zuek denok heroi hutsak zarete, benetako borrokalariak, inori eta ezeri beldurrik eduki gabe.

Eutsi goiari eta besarkada erraldoi bat Gasteiztik!

Roberto

Hola .¿como estas?.Supongo que deseando poder ver y abrazar a tus seres queridos, como todos nosotros.

Aunque no nos conocemos, queria decirte que comprendo tu situación y la de tantas personas que en estos momentos estamos en nuestras casas.Y las que somos madres y amamas, preocupandonos mas de nuestros hijos y nietos que de nosotras mismas, como hacemos siempre.

Yo estoy sola tambien en estos momentos, un poco sorprendida por esta situación tan inesperada, y también preocupada por mi familia, por mis hijos, por mis nietos... Todos los dias lo primero que hago al despertarme es hablar con ellos para saber si están bien.

Por mi trabajo este verano he podido conocer a muchas personas mayores que me contaban sus experiencias en tiempos de guerra,y yo pensaba lo fuertes que habian sido esas personas,y pensaba también que teníamos mucha suerte por la forma en que vivimos ahora.

Aprendí muchas cosas, y supongo que tu tendrás tambien muchas cosas que contar., y mucho que enseñar.

Esta situación también pasará, y algún día les contaremos a nuestros nietos todo esto, que un virus que ni siquiera se puede ver hizo enfermar a tanta gente,y que tuvimos que quedarnos tantos dias en casa esperando que todo pasara para poder salir a dar un paseo,a tomar el sol, a visitar a nuestra familia y amigos.....

Esto pasará, como pasa todo en la vida, y muy pronto podremos estar otra vez con las personas que queremos.

Te envio mucho ánimo y también un abrazo.

2020ko, apirilaren 2an

Kaixo, konfinamenduko laguna:

Nahiz eta ez dakit nor zaren, egun hauetan guztiok antzeko gauzak sentitzen ditugula uste dut eta horrek gerturatzen gaitu.

Patri naiz, 28 urte ditut. Madrilekoa naizenez, Bilboko euskaltegi batean euskara ikasten ari naiz. Orain, etxetik ordenagailuarekin ikasten dut. Urrian, euskara ikasteko eta jende berria ezagutzeko, euskaltegian izena ematea erabaki nuen, eta erabaki ona izan zela uste dut.

Gainera, emagina naiz eta ospital batean lan egiten dut. Egun hauetan, lan egitea zaila da guztiontzat, familiek, jaioberriei hartzeko, lasaitasuna eta segurtasuna behar dutelako. Zorionekoa sentitzen naiz, ume bat jaiotzen denean, aurrera jarraitzeko indarra ematen digulako.

Norbaitek behin esan zuen, hizkuntzak, kulturak eta historiak jendea markatzen duela, horregatik euskarak laguntzen dit hemengoengana hurbiltzen eta, beraz, hitz hauekin entretenitzen laguntzen dizut.

Besarkada handi bat, zaindu eta dena laster amaituko dela espero dut.

Patri

Portugaleten, 2020ko apirilaren 2an

Kaixo, lagunok!

Badakit bizitzen ari garen egoera ez dela erabat eroso, lau paraten artean egotera behartuta gaude eta ni behintzat, zoraturik nago! Egia esan, eguna bukatzera motibatzen nauen gauza bakarra etorkizunean pentsatzea da; kalera ateratzeko momentu izugarria, lagunekin topatzeko momentua...

Jakin badakigu Coronavirusak eragindako egoera hau ez dela inorentzat batere erraza; baina, jakin ezazue osasun aldetik espezialisten ardurapean eta eskuetan gaudela, guztia izugarri ondo gaudituko dugula. Gainera, izan ohi zen bezala, eguzkia atara eta irteten da, usoak kalean daude... Behintzat hori pentsatzen dut; ateratzeko aukerarik ez dugunez, ezin izan dut aipatutako azken hori ziurtatu kar, kar, kar!

Gainera, aipatzea ahaztu dut, dakizue zer uste dudan? Birus honek utziko duen arrastoa denbora igarota hobekuntzak baino ez dituela ekarriko. Uste dut Coronavirus madarikatua behin gaudituta, ez dela gaudituta ahal gaituen ezer egongo! 2020. urtetik aurrera hobekuntza ugari egongo dira osasun arloan eta gizartean. Birusa gaudituta, edozein birus gaudituzeko gauza gara eta!

Esandakoa kontuan hartuta, lasai egoteko eskatu nahiko nizueke, hemendik gutxira barreka egongo garelako guztiok familiarekin eta lagunekin. Hauxe da nire eskutitza, espero dut irakurriz gero, minutu atsegin batzuk pasa izana. Bizitzen ari garen egoera etenalditxo baina ez da, urte honetatik aurrera edozein larrialdi gaudituzeko gai izango gara. Eta garrantzitsuena: Espainiako historiaren eta munduko historiaren parte izango gara! Ez ahaztu komunikatzeko aukera berriak sortu direla; behar zaituztegu. Ez tristetu, eta sentitu oso handiak zaretela; maite zaituztegu.

Besarkada handi bat eta laster arte!

Maialen

Portugaleta, 2020ko apirilaren 2a

Kaixo, lagunok!

Azkenaldian, txakurra izatea pribilegio bihurtu denetik eta zaborra ateratzea atsedenaldira, jende asko egoera erromantizatzen saiatzen ari da, hau da, konfinamendu hau begi onez ikusten eta abantaila ateratzen. Askok, etxekeekin erlazioa estutzeko balio duela diote, baina dagoeneko ni erabat nekatuta nago eguneroko matrakaz. Beste hainbatek sukaldatu, kirola, edo eskulanak baino ez dituzte egiten, eta hori gutxi balitz, sare-sozialetan haien eguneroko xarmagarria muturraren aurretik pasatzen digute. Horrez gain, jendeak inoiz baino gehiago hitz egiteko gogo kontrolaezina aurkitu du! Orduak eta orduan pasa izan ditut telefonoz hitz egiten, sare-sozialetan mezuak erantzuten... Gainera, koronabirusa monotema bihurtu da arlo guzti horietan, ezin ihes egin diezaiokegun monotema.

Ez ezazu pentsa ni etxean lur jota nagoela, hala ere. Berrogeialdiak nire bizitzan eragin handia izan badu ere, nire egunerokoarekin jarraitzeko ahalegina egiten ari naiz: ordenagailuaren bidez klaseak ematen ditut, ingelesa akademiara joaten naiz eta baita musika eskolara ere! Izugarri miresten ditut berrogeialdia begi onez ikusten duten pertsonak, baina egoera erromantizatzeke momentua pasa dela uste dut. Hiru aste daramatzagu jada horrela, eta ahal duguna egiten jarraitu behar badugu ere, ezin dugu hau aukera ona iruditzen zaigun planta egiten jarraitu.

Sentitzen dut, gutuna apur bat mingotsa atera baitzait. Espero dut zu eta baita zure ingurukoak ere osasun egotea, edo behintzak laster hobetzea, eta zientzia-fikziozko filme hau ahalik eta lasterren amaitzea.

Besarkada handi bat!

Izaro

Nuria naiz eta Santurtzin bizi naiz gurasoekin. Dagoeneko 20 egun daramatzagu etxean birus madarikatuak, Koronabirusak, mundan zehar dabilelako. Hasieran, ez nintzen kezkatzen, uste bainuen ez nuela zuela asko iraungo, eta pentsatu nuen egun batzuk izango genituela erlaxatzeko eta pixka bat ahazteko gure eguneroko lanaz eta errutina estresagarriaz... baina erabat oker nenbilen. Gaur, 20. konfinamendu-eguna da, eta erotu egiten naiz. Airea hartzera atera nahi dut, nire errutinara itzuli, lo-ordutegi normala izan... Begira, lanera joan nahi dudala, esango nuke!

Nire familian, ahalik eta gutxien ateratzen saiatzen gara, hori guztia azkar amaitzeko. Adibidez, astean behin erosketak egitera ateratzea, benetan behar dena erosten saiatzea, eta ez alferrikako gauzak erosten erotu zen jende asko bezala. Daukagun beldurrik handienetako bat da nire aitona-amonek arrisku-taldekoak direnez, hartu ahal izatea guk erosketak eramaten dizkiegunean. Horregatik, ahalik eta gutxien joaten saiatzen gara, eta joaten garenean beti eskularruak eta maskara daramatzagu, eta,

mesedez, gugana ez hurbiltzeko eta daramagun guztia ondo garbitzeko eskatzen diegu, birusa izan badezake ere. Nire aitona-amonen etxera joatean gogorren egiten zaidana da, ezin diedala musu eta besarkada bat eman, etxera joan haiekin hitz egitera, orain telefonoz egin behar baitut. Nik badakit nire aitona-amonek egoera ulertzen dutela, baina nekez ikusiko gaituzte nahi duten guztia goazenean, eta oso triste jartzen naiz.

Buruan bueltak ematea besterik ez den egun hauetan, lagunez gogoratzen naiz. Zuen falta ikaragarri sumatzen dut! Gure betiko tabernan garagardo batzuk hartu eta gure gauzez hitz egin, asteburuetan joan edo, besterik gabe, lanera norbaiten bila joatea falta zait.. Egun hauetan, nire ondoan dudan jendeaz jabetzen naiz, eta ez dut behar adina baloratzen, ez diet nahi dudan guztia esaten, zenbat maitatzen ditudan... ez naiz horrelako pertsona baina hobe da inoiz ez baino eta hori aldatuko da! birus madarikatu honek kalera irteten uzten digunean, lehenik eta behin, nire familia besarkatzera joan eta zenbat maitatzen dudan esatera joango naiz, eta, bigarrenik, nire lagunak lan egiten dudan tabernara etortzeko esango diet eta erronda batera gonbidatzera, musuak ematen dizkiet bitartean. Hau amaitzeko gogoia daukat...

Konfinamendu honetan, aitona-amonek kontatu dizkidaten istorioez gogoratu naiz, bizi behar izan dituzten inguruabar guztiez. Kontatzen zizkidatenean, pentsatzen nuen ez zela hainbesterako izango, aitona-amona guztiak puztu egiten direla beren bizipenak kontatzeko orduan, baina orain inoiz baino gehiago atzera begiratzen dut, hori guztia gogoan izanda, eta gaur egun bizi dugun egoera aztertzen dut, eta... ze arrazoi daukaten, hau ez da ezer! etxean sartuta egon besterik ez dugu, era guztietako erosotasunak baititugu. Gogorra da etxetik irteterik ez izatea, baina, behintzat, gure familiari dei diezaiokegun telefono bat daukagu, gerra edo estatu-kolpeak izan zituztenean familiak bezala ez dagoela ikusteko, ez baitzekiten nola zeuden senitartekoak...

Horregatik uste dut une zail hauetan elkar zaindu behar dugula, irribarrez, txantxaz, deiez, dantzaz, kantuz..., hori guztia azkarrago pasa dadin eta gureak besarkatzera joan gaitezen. Ahaztu gabe lanean ari diren pertsona guztiak, guri ezer falta ez dakigun: sanitarioak, supermerkatuetan lan egiten duten pertsonak, garbitzaileak, garraiolariak...

Nik ez zaitut ezagutzen, ez dakit nor zaren, baina berdin zait. Espero dut gutun hau irakurtzen eman duzun denbora atseginagoa eta dibertigarriagoa izatea, eta zu ezagutu gabe beste norbaitek maite zaituela jakitea. Ea azkar pasatzen zaigun... Animo, gutxi geratzen da eta!

Musu asko eta laster arte! Zure gutunaren zain, agur.

Nuria.

Lezo, apirilak 2

Kaixo.

Gu Lezoko neska talde bat gara, Maddi, Malen, Ihintza, Amaiur eta Nahia. Pasaia-Lezo Lizeoan gabilitza, DBH1 egiten. Euskarako irakasleak kontatu digu Matia fundazioak proposamen bat egin digula, adineko pertsoneri, egoera zail honetan laguntzeko, konpainia egiteko, gutuntxo batzuk idaztea.

A ze abentura! Guretzako ere egoera oso zaila da. Gure egunerokoan egiten genituen gauza guztiak, edo ia guztiak, alde batera utzi behar izan ditugu osasun egoera larri honi erantzuteko. Baina denak merezi du. Ez genuen inoiz pentsatu, birus batek gure bizimodua hankaz gora jar zezakeela: klaseak etxean jaso, lagunak eta familiak ezin ikusi, kirola, musika, dantza ... dena gelditu da. Baina pixkanaka-pixkanaka, birusari aurre egingo diogu!

Nahiz eta egoera hau aspergarria edo neketsua izan, guk ere badauzkagu proposamen batzuk denoi azkarrago pasatzeko. Ordutegi bat egin, agian ez duzu beteko baina, zer eginez dakizunean, edo teknologiarekin denbora gehegi pasa duzula ikusten baduzu, begiratu ordutegiari. Ordutegian gauza asko idatzi ditzakezu: irakurketa, eskulanak, kirola, musika, txukunketa, sukaldaritza, mahai jolasak, garai bateko argazkiak begiratu eta pasatako momentuetaz gogoratu... Denbora azkarrago eta dibertigarriago pasatzeko modu ezberdin asko dagoela konturatuko zara.

Hala ere, ez ahaztu krisi honekin amaitu nahi badugu, neurri zorrotzak hartu eta bete egin behar direla, eskuak ondo eta askotan garbitu, distantziak gorde, etxetik ez atera... Neurri horiek hartuz gero, dena ondo aterako da!!

Zuei eguna alaitzea edo itxialdia motzagoa egiten laguntzea lortu ez badugu, pentsatu zer gauza egingo dituzuen, hau guztia pasa ondoren: senideak ikusi, lagunak ikusi, berriketan aritu, jolastu, eguzkia hartu, paseatu... Disfrutatu, bitartean, momentu txikiekin: elkarriketa motzekin, deiekin, argazkiekin, irakurtzen, idazten, pentsatzen, gogoratzen. Jakin ezazue, ez zaudetela bakarrik! Ezta gauez argiak itzaltzen direnean ere.

Muxu handi-handi bat.

Eta zaindu.

DEN-DENA ONDO ATERAKO DA!

Maddi, Malen, Ihintza, Amaiur eta Nahia
Pasaia-Lezo Lizeoa, DBH1

Pasaia, apirilak 2

Kaixo!

Maiatzaren 13tik ezin atera gabilitza, geldik gaude eta ateratzeko modu bakarra balkoian egota, edo lehioak irekitzea da. Ez da kalean egotea bezala baina, gutxienez, konturatu gara kalera ateratzerako orduan hobeto sentitzen garela, hemen barruan baino. Ikusi dugu, balkoira ateratzean, lehiotik begiratzean, eup! kalera salto egiteko gogo sartzan zaigula; gutxienez, bai. Etxean egon baher hau aspergarria da, bai; eta tentazio handia da kalera begira egotea, orain inoiz baino hobeto ulertu dut.

Bestalde, orain denbora dugu lehen egin ezin genuena egiteko: lo, garbiketa, ordenatzea... Teknologia berriek ere aukera eman digute harremanak ez galtzeko.

Bideodeietan ikus gaitezke, zer hori baino hobeto? Ez da gutxi. Hori ere ikasten ari gara dugu, daukagunari begiratzan, aukerei begiratzan.

Dena hasi zen bezala bukatuko da noizbait, laster, ziur! Bitartean, lasai-lasai, etxean gelditu, babestuak. Orain laguntza-garaia da.

Laguntza behar dugu, eta laguntza eman behar dugu. Ez gaitezen arriskuan jarri. Eta ez dezagun inor arriskuan jarri.

Lucia

Pasaia, apirilak 3

Zer moduz?

Adur naiz. Ez da erraza etxetik atera gabe bizi zena.

Nik gauza batzuk egiten ditut denbora pasatzeko. Adibidez, bideo-tutorialak ikusi, gauza asko nola egin behar den ikasten da.

Askotan, sukaldatu egiten dut. Egiten ez dakidana esperimentatzen dut, horrek asko laguntzen dit. Eta hurrengoan, berriz errepikatzen dut eta goxoagoa ateratzen zait, normalean.

Amarekin txateatzen dut berarekin ez nagoenean. Eguna zer moduz joan zaion kontatzen dit, nik ikastolako lanak egin ditudala... Eta teknologiarekin laguntzen diot.

Direktoetan ere sartzen naiz, far batzuk botatzen ditut, eta nere eguna hobetzen dute.

Eta bestela, jolasten hasten naiz, tiroak botatzen saski baloian.

ESPERO DUT NERE GOMENDIOAK LAGUNGARRIAK IZATEA ZUENTZAT

Muxu handi bat,

Adur

Pasaia, apirilak 2

Kaixo,

Xabier eta Ibai gara, Pasaia-Lezo Lizeoko DBH1eko ikasleak.

Zer modu zaudete egoera arraro honen aurrean? Gu nahiko ondo. Esan beharko. Baina hainbeste denboran kalera ez ateratzea oso arraroa da. Batzuetan ez gara oso ondo sentitzen etxean itxita, baina norbaitekin film bat ikustea ere ondo dago. Eta mahai jokoetan aritzea ere ideia ona da, telebistako pantailatik pixka bat urruntzeko.

Nire aitak lanean jarraitzen du lekuak desinfektatzen eta etxera beti etortzen da maskarila batekin. Nire izebari traje espazial moduko bat eman diote, baina ez du beti erabili behar.

Etxean ez ginela oso ondo sentitzen, eta kortinak kentzea bururatu zitzaigun. Eta funtzionatu du! Hobetu sentitu ginen, nahigabe kalea ikusten delako. Eta horrek askatasun pixka bat handiagoa sentiarazten digu. Probatu zuek ere, gutxienez, kaleak eta bistak ikusteko. Batez ere, leiho handiak badituzue. Ia-ia kalean bezala sentituko zarete.

Muxu handi bat denei. Zaindu eta ANIMO!!!!

Xabier eta Ibai

Pasaia, apirilak 6

Kaixo!

Eneritz eta Uxuri gara, Eneritz, Pasai Antxokoa eta Uxuri Altzakoa. Gaur 19 egun bete dutugu hemen, etxean itxita. Hasieran pozik ginen, uste genuelako oso pozik egongo ginela ikastola gabe eta kalean jolasten.

Baina berehala enteratu ginen klaseak egongo zirela ordenagailu bidez, eta ezin izango genuela kalera jaitsi. Orduan, momentu hartan lur jota geratu ginen. Hasieratik oso aspertuta gaude. Bueno gu behintzat, bai.

Uste dugu koarentena bukatu ondoren, azkar batean guztiak etxetikan aterako garela eta, poz-pozik, beti bezala jarraituko dugula. Eta ez momentu hauetan bezala.

Eneritz eta Uxuri

Pasaia, apirilak 6

Egun on!!!

Gu Nora eta Iraia gara, Pasaia Lezo Lizeoko ikasleak, DBH1ekoak. Konfinamendua zaila egiten zaigu guri ere. Baina, hau guztia bukatzen denean, denen artean festa bat egiteko asmoa dugu. Horretan pentsatzen dugu, gehiago ezin dugunean.

Eta badugu denbora pasatzeko modu goxo-goxo bat ere: TORTITAK EGITEA. Hemen duzue errezeta, zuek egiteko. Edo beste norbaitek zuentzat egiteko.

Eta muxu handi-handi bat.

Nora&Iraia

TORTITAK

OSAGAIK:

- 140g irin
- Goilarakada bat azukre
- 8g legamia
- Gatz pixka bat
- 200ml esne (edalontzi bat)
- Arrautza bat
- Goilarakada bat gurin

NOLA EGIN:

1. Ontzi batean irina, azukrea, legamia eta gatza sartu.
2. Ondo nahastu.
3. Gurina urtu, mikroondas labean, 5-10 segundoz.
4. Beste ontzi batean, arrautza, esnea eta gurina elkartu, eta dena nahastu.
5. Hasierako nahasketa azkeneko nahasketarekin elkartu, eta irabiatu. Masa egina dago!!
6. Masa pitxar batean sartu. Errazago manejatuko duzu.
7. Zartagin txiki bat hartu, antiadherentea izan dadila janaria ez itsasteko. Tenperatura erdian jarri.
8. Kontuz!!! Zartaginean ez duzu gurina edo olio a bota behar.

9. Pitxarra hartu eta masa pixkatxo bat zartaginera bota.
 10. Masa irakiten hasten denean, tortitari buelta eman. 5-10 segundu itxaron eta atera.
 11. Plater batean, bata bestearen gainean jarri. Jateko prest daude.
 12. Hutsik jan daitezke, edo lagunduta: frutarekin, mermeladarekin, txokolatearekin... Eta bakarrik, edo konpainiarekin.
 13. ON EGIN!!!
-

Lezo, apirilak 6

Kaixo,

Gu Pasaia-Lezo Lizeoko DBH-ko bi ikasle gara, Izaro eta Amaiur. Euskarako irakasleak animatu gaitu hau idaztera, itxialdi honetako gure esperientziaren inguruan. Gutun hau eguna azkarrago pasatzeko izan daiteke, irakurtzen ari zaren bitartean, aurrerantz egiteko.

Hasieran koronabirusa gaixotasun normal bat zela uste genuen, baina denbora aurrera joan ahala konturatzen ari gara larria dela. Batez ere, pertsona helduentzat edota beste gaixotasun batengatik, osasuna ahulduta zeukatenentzat. Baina horrek ez du esan nahi gu ezin garenik gaixotu, ezagutu ditugu kasuren batzuk. Horregatik, neurriak bete behar ditugu, eta zaindu. Zuek bezalaxe. Hori ikasi dugu.

Badakigu egoera hau denentzat aspergarria eta neketsua ere izatera iristen dela. Ez du inporta, denok gure partetik jartzen ari gara, eta dena ondo aterako da.

Animo asko denei. Ea guretzat garrantzitsua den gutun hau irakurtzen disfrutatzen duzuen.

Muxu handi bat!

Zaindu, eta...

ANIMO!!!

Amaiur& Izaro

Kaixo, lagunok!

Goiz eder honetan, leihotik begira nagoelarik, eskutitz hau idaztea otu zait zeuen aurpegian irribarre goxo bat ateratzeko. Ea lortzeko gai izango naizen!

Atzo, lerro hauetan zeri buruz idatziko nizuen pentsatzen nuela, burura etorri zitzaidan koronabirusa dela eta, egoera antzekoa pairatzen ari garela, etxetik atera gabe, bisitak jaso gabe eta eguzkitan egon gabe. Hala ere, uste dut hobeto etorriko litzaigukeela une atsegina igarotzea, betiko gaiari bueltak ematea baino.

Gaur ere, gaua pasa eta eguzkia atera da. Egun berria da eta egunari onena atera behar zaio. Bakoitzaren burua ondo apaindu, gustuko arropa jantzi, gosari goxo bat gozatu eta alboan dauden bizikideekin ahalik eta egun alaiena igaro daiteke.

Neronek gauza bera egiten dut, etxekoekin egotera behartuta. Goizean zehar gauza asko egiten saiatzen naiz, gosari goxo bat prestatu, neure burua ondo apaindu, baita etxea ondo txukundu, eta hau dena bukatu eta gero, ariketa fisiko pixka bat egiten dut. Itxialdi honen hasieran, etxe barrutik ibiltzea bururatu zitzaidan. Egian esan, 100 metro karratuko etxe batean bizi naizenez, pentsatu nuen atsegina izango litzaidakeela ibiltzea, beste jarduera fisiko bat baino. Bai zera! 100 metro karratu horiek bihurtu

ziren 40 urrats, oztopo barik dauden lekuetatik bakarrik ibil nintekeelako. Ondorioa, hogei buelta eman ondoren, zorabiatuta, aulki batean eseri behar izan nuen. Han bukatu zen nire ibilaldia eta egun hartako ariketa fisikoa.

Handik aurrera (onartu behar dut ondo etorri zitzaizkidala lagunen aholkuak) sasoi onean mantentzeko ariketei ekin nien, badakizue, pilates, yoga, gimnasia eta antzeko jarduerak. Hau eginez gero, behintzat, zorabiorik ez.

Gaur, hilabeteren buruan, gauza bera egiten jarraitzen dut eta burura datorkit betidanik ikusitako nagusien etxeetan egiten den ariketa fisikoa.

Zaharrek ideia onak bide dituzte. Aintzat hartu eta ikastekoak ote dira?

Joxerra

Egunon, lagunok!

Gaur udaberriko egun zoragarri bat atera da.

Balkoietatik zarata entzuten.

Bizilagunek bere terrazetan kirola egiten, korrika egiten, garbitzen egiten dute.

Niri balkoitik ikusten dudanak poza ematen dit.

Noiz behinka pertsona batzuk erosketekin igarotzen dira.

Auzoko txakur guztiak haren jabeekin datoz gure enparantzara.

Niri ez didate inbidia ematen; haiek ikustez pozten naiz, bizitza aurrera jarratzen duela sentiarazten nau.

Eszena hau "sustoa" baino lehenengoa bezelakoa da.

Heroi txikiak, umeak, balkoietan. Ez da negarrik entzuten ezta kazketarik ere.

Umek jolasten, barre egiten eta txaloen orduan txalotu egiten dute.

Haiek jasaten badute, guk ere bai.

Nik soilik egun honen zatitxo bat kontatu nahi nizuen, honek animatuko zaituztelakoan.

Zuek mila bataila baino gehiagotan parte hartu dizutela pazientzia eduki behar dugula eta bizitza arrisku bat eta plazer bat egunero erakutsi diguzue.

Gaur daturik gabe, zifrarik gabe.

Gu ere ikusleetan bihurtu gara, lehiotik begiratzen dugu, kaleko airea harnasten dugu, erlaxatu egiten gara..... orain gure betebeharra hori da.

Musu potolo bat eta zaindu, zaindu asko.

Puri Donostiatik.

¡Hola amigo/a!

Soy una estudiante de técnico de laboratorio, a la que el coronavirus le suspendió las prácticas que tenía que realizar tras haber terminado los estudios, y no pudo continuar haciéndolas. Sin embargo, no me rindo, y de mientras aprovecho para dedicarme a estudiar y pasar más tiempo disfrutando de algunos de mis entretenimientos favoritos como son: leer, ver películas o series que me animen y me entretengan... etc.

Además, aprovecho para hacer ejercicio en casa y estar más tiempo con mis seres queridos y seguir comunicándome con mis amigos. Este confinamiento es necesario

para prevenir el coronavirus. Dicen que nosotros somos nuestra mejor vacuna quedándonos en casa. Más vale prevenir que curar.

Que sepas que eres mucho más fuerte de lo que piensas, de verdad. Puedes con esto, y en nada te veré de nuevo, sin importar la distancia que mantengamos entre nosotros. Y eso sucederá en muy poco tiempo. Y tú. Sí tú. Debes estar muy orgulloso por lo que estás luchando. No valemos todo el mundo. Que lo sepas. Y en especial a las personas mayores. Vosotros que pudisteis con la guerra, que pudisteis con la escasez y la miseria de la posguerra, que habéis ayudado a vuestros hijos y a vuestro nietos... Tenéis que seguir haciéndolo. Os necesitamos. ¿¡No vais a poder con este virus!?

Como decía Marie Curie: "nada en la vida debe ser temido. Solamente debe ser comprendido. Ahora es el momento de comprender más para temer menos".

Un abrazo enorme♥♥♥♥♥♥♥♥

Coronacura (porque pronto habrá una)

Kaixo guztioi,

Ulibarri Euskaltegiaren bitartez ezagutu dut Matia Fundazioaren ekimena eta izugarritzko idea iruditu zait eskutitz bat idaztea irakurtzen duenari entretenitzeko. Egoera larria izan arren, ikuspuntu positibo batetik begiratu beharra daukagu, horregatik, nire eskarmentu pertsonala kontatuko dizuet.

Leioan bizi naiz, beraz, Leioan konfinatuta nagoela esan daiteke. Bi pertsona eta katu bat bizi gara etxean, hau da, nire mutil-laguna Ibai, nire katua Anita eta ni. Agian txakurra izango zen aproposena egun hauetan, kalera irten ahal izateko, baina gure eguneroko bizimoduarekin bateraezina da txakur bat izatea, denborarik ez daukagulako paseora eramateko.

Ibairen bizimodua ez da asko aldatu, berak nahitaez lanera joan behar duelako egunero. Nire errutina, ordea, asko aldatu da, ezin dudalako lantokira joan eta gainera, epaitegiak itxita daudenez eta epaiak bertan behera gelditu direnez, abokatua izanda, ezin dut gauza handirik egin extean egonda. Baina lehen azpimarratu dudanez, ondorio positiboak ikusten dizkiot etxean egoteari. Alde batetik, Ibai eta Anitarekin denbora gehiago egoteko aukera daukat, normalean, lanean nago ia egun osoa (goizeko zortziretatik gaueko bederatzietara, lantokian bazkaltzen dut eta) eta etxera heltzen naizenean nahiko nekatuta nagoenez, pentsatzen dudan bakarria lotan joatera da. Beste alde batetik, normalean egin ezin ditudan gauzak egiteko denbora daukat orain, gustuko dudan liburua irakurtzea, telebistako saioa ikustea, kirola egitea edo etxeko garbiketa egitea, besteak beste. Gainera, sulkaldatzeko denbora daukat, inoiz ez pentsatutako zaletasuna barneratu dut eta benetan nahiko ona naizela sukaldean. Egun hauetan jaki desberdinak egiten ikasi dut, indabak, limoiezko tarta, azalozeko pizza eta dilistak, adibidez.

Egia da normaltasuna nahiago dudala, hau da, lanera joatea eta lagunekin kalera edo tabernetara beldurrik gabe joan ahal izatea, baina esan nahi dudana da, etxean egonbeharreko denbora honetan baliagarria izan daitekeela normalean egin ezin

ditugun gauzak egiteko aprobetzatzea, horrela denbora azkarrago pasatzen delako eta garai arraro hau zerbait ikasteko balio ahal duelako.

Besterik gabe, besarkada handiak eta zaindu zaitetze mesedez!

OIHANE

Aitona-amonak maitagarriak :

Zer moduz zaudete? Hala edo nola, hain bestean... bai erantzun horiek ezagunak dira. Baina egun hauetan beste bat gehitu behar izan dugu: beste bizi modu batez bizitzen ikasten. Eta tira, moldatzen ari gara eta ez dago gaizki.

Gure egunerakoa zeharo aldatu da. Bai, eta ikaste ari gara moldatzen. Nik horrela ikusten dut. Ezin dugu lehen egiten genuena egin, baina errutina bat jarri behar dugu.

Dakizuenez ezin gara etxeetatik ateratzen. Ni lanean ari naiz etxean, ordenagailua eta sakelakoa erabiliz. Ez zait bat ere gustatzen, baina zer erremedio! Orduak eta orduak eserita. Honen ondorioz, soinketa edo ariketa fisikoak egin behar ditut etxearen barruan. Derrigorrez, bestela hankak eta batez ere oinak gero eta puztuagoak daukat. Bideo batzuk ikusi ditut eta nire ariketa fisikoak egiten ditut. Nire eran, baina, tira, mugimendua da . Nire gorputzak behar du eta eskertzen du. Nire osasunerako delako Dakidanez, zuek ere halako zerbait daukazue. Ez dakit egun hauetan monitore batekin edo egongela handi batean, elkarrekin egiten duzuen. Behar, beharrezkoa da.

Otorduak berdin jarraitzen dut, hori bai, janaria prestatzeko denbora gutxi. Normalean arratsaldean prestatzen dut hurrengo egunerako janaria. Dastatzen dut poliki, poliki, bai, erritmoa zeharo moteldu da. Gustora egiten dut.

Janaria prestatu ondoren, telefonoa hartzen dut eta amari deitzen diot. Gero beste senideentzat whatsapp edo mezu bat bidaltzen dut. Niri bidalitakoak irakurtzen ditut. Egun hauetan idatzi eta irakurri, hori da gure komunikazio modua. Motela, baina egiten dugu.

Zuek ere zuen erritmoa jarraitu behar duzue. Zuen errutina edo egunerokoa aldatu da, baina beharrezko gauzak egin behar dira. Nahi-nahiez. Etorkizunari begiratu behar diogu esanez: "egun bat gutxiago aurreko egunerokotasuna iristeko". Bidea egiten ari gara, eta pixkanaka pixkanaka, helmugara iristen ari gara.

Ondo zaudetela espero dut. Gora animoa!!!

Bihotz bihotzez besarkada handi bat.

Queridos seniors:

Sí, seniors por categoría, no solo de edad, también de nobleza y por ser SEÑORES con mayúsculas.

En estos días de confinamiento, obligados a estar en casa, la vida ha cambiado de ritmo. Primero ha sido un golpe para ordenar nuestro día a día. Las horas no se marcan por el horario del tren o del trabajo, o del descanso en el trabajo o de vuelta a casa.

El segundo golpe ha sido nuestras relaciones con las personas, no vemos las mismas caras de todos los días, no saludamos cara acara a los de siempre , ni quedamos a tomar un café.

No, todo eso ha cambiado. Y ahora estamos aprendiendo a vivir de otra manera. Porque no queda otra. Ahora no vale quejarse por lo que no tenemos, NO; ahora tenemos que aprender a vivir con lo que tenemos.

Os quiero contar mi día a día, no sé si es aburrido o no; ni me lo planteo. Es mi ritmo actual con el que tengo que convivir.

Me levanto como si fuera a trabajar, pero no salgo de casa. Estoy haciendo eso que se llama teletrabajo. Trabajo a distancia, dicen. Ya, pues lo que tengo cerca y tan cerca que no me despegó de él, es el ordenador. Gracias a él puedo comunicar con mis compañeros, realizar la tarea de antes pero casi sin parar de escribir, de pensar cómo puedo hacerlo más rápido, cómo puedo llegar a todo lo que tengo que hacer. Hay momentos de agobio, pero tengo que darle a la imaginación para poder hacer lo que tengo que hacer.

Como sigo el horario de antes, la comida la he preparado el día anterior. Eso no ha cambiado, pero sí el hecho de que no puedo ir a la compra como hacía habitualmente. Así que tengo una lista, que supone hacer la compra una vez a la semana. Ahora hay que hacer cola a la entrada del supermercado, no puede haber más que un determinado número de personas dentro. En la cola, estamos separados por lo que dicen distancia de seguridad. Extended los brazos y esa es la distancia. En el super no siempre está lo que quiero, así que compro lo que hay. Ni tan mal.

Tampoco puedo salir a pasear o hacer deporte, así que esto lo hago en casa. Para pasear, tengo algún cuadro colgado por la casa, así que me acerco, lo miro con detalle y me imagino en ese lugar. Tengo un cuadro con un bosque y un camino. Hago ese recorrido mentalmente. Respiro hondo. Me imagino el ruido de las hojas movidas por el viento. Otras veces, miro fotos de viajes. Para hacer deporte, tengo un pequeño choco en una habitación. He tenido que cambiar algunos muebles de sitio. Bueno, es un pequeño gimnasio. Mi cuerpo necesita este ejercicio, si no, mis pies van a estallar. Para vosotros también ha cambiado el día a día. Seguro que el personal del centro sigue tan animoso como siempre, os traen con mimo las bandejas con desayuno, comida, merienda y cena. Ya sé que no hay visitas, pero seguro que hay llamadas de teléfono o videollamadas.

Todo esto es nuevo, y dentro de unas semanas será agua pasada. Yo voy contando un día menos de confinamiento. Así, sé que nuestro día a día de antes está cada vez más cerca.

Me voy a despedir con un hasta pronto. Por favor, no olvidéis hacer algo de ejercicio y beber agua. Esto seguro que no ha cambiado. Hoy más que nunca es necesario. Yo lo hago, no creáis que por gusto; no, es que es necesario.

Queridos mayores, queridos seniors, cuidaos mucho. Un abrazo muy muy cariñoso

Kaixo, lagunok!

Idea hona iruditu zitzaidan gutun bat idaztea gure nagusiei. Haiek konfinatuta daude guztiok bezala, baina nagusi batzuk, beraien etxean bakarrik daude eta seguru aspertuta daudela. Gaur arte 20 egun etxean giltzapean daramatzagu, hala ere, hobe da egunen batean amaituko dela pentsatzea eta berriz elkar ikus dezakegula, hau da, etxean geratzen bagara konfinamendua irauten duen arte.

Zuek, nagusiak, guk baino hobeto dakizue zer den etxean konfinatuta egotea gerra garaia eta gerraostean bizi izan zenutelako. Garai hauek oso zailak dira guztientzat, batez ere, osasun arloan lan egiten dutenentzat, baina zuek, nagusiek ere arrisku handia daukazue. Izan ere, modu bakarra guk zuek zaintzeko etxean geratzea da.

Hau ikusita, aholku batzuk emango dizkizuet, berrogeialdi azkarrago pasatzeko. Lehenengoa, errutina bat egitea astehelaketik ostiralera arte, hala nola, goizean liburu bat irakurtzea gero janaria prestatzea eta arratsaldean filme bat ikusitea. Bigarren aholkua izan daiteke, teknologiarekin ondo moldatzen bazarete edo zeozer badakizue horri buruz, familiarekin edo lagunekin bideo deiak egitea, adibidez.

Espero dut gutun hau zerbaitetarako erabilgarria izatea. Nik uste dut egingo dudan lehenengo gauza etxetik kanpo egon ahal garen momentuan, nire amamaren etxera joatea eta berarekin egotea izango dela. Zuek, zer pentsatu duzue egitea hau guztia amitzen denean?

Besarkada bat!

Laida.

Aupa, ekipo!

Eguerdion, matia fundazioaren proposamenda irakurrita oso ideia ona iruditu zait eta parte hartzeko asmoarekin idazten dizuet. Gu 5 pertsona bizi gara etxean Aita, Ama eta hiru seme-alabak. Konfinamendu honek frogan jartzen gaitu eta gure gaitasunak limitera eramaten gaituzte, talde bat bezala jokatu behar dugula pentsatzen dut. Gure egunerokoa ez da izaten hari oso liluragarria baina konfinamendu honek lagundu egin gaitu, gezurra badirudi ere.

Gurasoak egunero goizean goiz joaten dira lanera eta gauen zortziak aldera iristen dira egunero, eta gure artean ez dugu denbora asko pasatzen. Orain gure artean denbora asko igarotzen hari gara eta horrek asko laguntzen gaitu, gure erlazioa askoz hobetoago da orain eta gure arazoetaz hitzegiten hurbilago sentitzen gara. Nire gurasoekin irekitzea eta nire arazoak kontatzea ekarri du birus honek, horregatik pentsatzen dut konfinamendu honek alde ona ere edukiko dituela. Gainera, konfinamendu honek momentu txar batean hartu nau, nire bikotekideak bere bidea egite erabaki eta utzi egin ninduen konfidamendua hasi baino 3 aste lehenenago. Ni kirolaria naiz eta kirola egiteak eta futboleak jokatzean asko laguntzen ninduen, horrek nire arazoak burutik kentzeko eta kirolaz disfrutatzeke aukera ematen zidan. Birus honek denok jarriko gaitu frogan baina denen artean ere gaingidituko dugu, eta lasai egon indartsuago ere aterako garela.

Talde bat bezala jokatu behar dugu eta pertsonen alde eskuzabaltasunena atera, jende asko dago lanean birus honen aurka eta pixkanaka-pixkanaka aurrera goaz. Gauza

garrantzitsuak ez ditugu ahaztu behar, mugitzea, ondo jan eta deskantsatzea, eta gauzak egiten egotea. Gure gorputza ahalik eta aktiboen edukitzeko etxean zehar ibiltzea onuragarria izango da gure gorputzarentzat, irakurtzea edo gustatzen zaizkigun gauzetan pentsatzea. Ilusioak egitea, amestea ez da txarra gure barnean helburuak jartzea eta helburu horiek lortzea oso ona da guretzat.

Besarkada handi bat !!

Ander

Egun on, ekipo!!

Matia fundaziotik jasotako ekimena zoragarria iruditu zait eta hemen nauzue garai arraro honetan eskutitz bat idazten. Nire izena Ignacio da eta nahiz eta Hondarribikoa izan, Bilbon bizi naiz. Egun, Madriletik gertu nago nire familia politikoarekin, aitagarreba gaixotu baitzen. Baina ez kezkatu etxean bueltan dago eta.

Hemen nahiko ondo gaude egoera ikusiz gero. Nire koñata, konatua, neska laguna eta laurok elkarbanatzen dugu etxea bai Bilbon bai hemen. Etxe honetara ailegatu ginenean, obrak orain dela oso gutxi bukatu zituzten eta gela guztiak hankaz gora zeuden. Hori dela eta, lehenengo gaua egongelan pasatu genuen. Altzari ugari eta desordenatuak betetzen zuten etxe osoa eta oheak ezin ziren aurkitu. Berogailua ez zebilen, baina tximinia geneukan. Kea pixka bat barrura sartzen zen, baina behintzat berotasun pittin bat sentitu genuen pizterakoan. Hotzak eta bereziki berotasunak elkartu gintuen.

Badirudi obrak egiten ari zirela ur-horiketa. Eskerrak, ondoan, belardi bat geneukala gure beharrak egiteko. Txorizo pare bat, gazta apur bat eta ogia jateko geneuzkan eta hor sutondoan berotu genuen dena. Ardo botil bat ireki genuen. Edalontziak ez. Etxeko bazter ezkutu batean egongo ziren. Gurekin ez behintzat. Kanpoan euria ari zuen baita hotza eta koronabirusa ere. Baina guk suaren txinpartak entzuten genituen bakarrik. Egongela ez-egon gela bat zirudien hainbeste kaosarekin. Baina koltxoi bi aurkitu genituen eta gelaren erdian, sutondoan, paradisu txiki bat sortu genuen. Bat-batean, hor erdian, denok estutzen ari ginen bitartean, ilunpetan, manta zikin pare batekin eta berotasun ahula ailegatzen zitzaigun suaren bidez zuetaz akordatu nintzen.

Hain gertu sentitu nintzen zuengandik. Beste garai batez oroitu nintzen. Garai gogorrak gosez jorratuak, baina maitasunez eta elkartasunez ere. Eta hor kanpoan, mundua zatitzen ari zen bitartean, nire barruko mundua hasten ari zen nire bihotzeko suaren bidez zuen oroitzapenekin elikatuta. Zuei esker konturatu naiz zein erraz eta zein ustekabeko egoeran sor daitekeen zorientasuna. Nola garatu dugun mundu hain konplexua, hainbeste teknologiak, beti etorkizunaren menpe eta nola horrek ez gaituen zorientsuago bihurtu. Zuen bizitzak imaginatu ditut gauzak ximpleagoak zirenean. Ez errezoak, ximpleagoak. Eta inbidia eman didazue. Bat-batean, zuetako batekin hitz egiteko gogo handi piztu zait. Beste mundu ezezagun batera bidaiatzeko zuen istorioen bidez. Orain ni naiz zuen laguntzaren

eske dabilena.

Lagundu iezaguzue mundu jasangarri bat eraikitzen. Zuen istorioak ahazten baditugu, ezagutzen dugun mundua, akabo!

Muxu handi bat

Ignacio

Portugaleten, 2020ko apirilaren 2an

Kaixo, laguna!

Bizi ari naizelako badakit zein gogorra den egoitza batean berrogeialdi hau bizi behar izatea, izan ere, nire amama daukat batean. Maite dituzun senide horiek urrun izateak min egiten digu, ezin baitugu haiekiko dugun maitasuna azaleratu. Aitizitik, gaur egungo teknologiak direla eta, arazoak konpontzeko edo behintzat min handi hori hain handia ez sentitzeko erabiltzen ditugu, zorionez.

Badakit egoitzetan dagoen jendea lan izugarria egiten ari dela zuekin berrogeialdi hau hain neketsua ez izateko; benetan, lan eta lan egiten duten langile hauek gure benetako heroiak dira. Gainera, haien laguntzari esker, badakit aurrera aterako garela eta hau bukatu bezain pronto, bisita egitera joango gatzazue gure barruan azaleratu gabe izan dugun zuekiko maitasun hori emateko, faltan botatzen zaituztegu eta.

Esan beharra dago, guztion laguntza duzuela hor barruan egon bazaude ere. Laguntza fisikoa ezin dugu eman, baina momentu zail hauetan, laguntza emozionala eta batez ere, hor gaudela demostratzea, beste edozein laguntza baino garrantzitsuagoa da. Bideodeiak egiteko hor egongo gara, deiak egiteko hor egongo gara, eskutitz bat idazteko hor egongo gara eta jakin ezazu, edozertarako laguntzeko prest egongo garela eta ni neu lehenengoa.

Besterik gabe, jakin ezazu irrikitan gaudela besarkadak emateko eta orain, besarkada birtuala den arren, nire bihotz-bihotzetik bidaltzen dizut; badakit, honetatik aterako garela eta inoiz baino indar gehiagorekin, hain zuzen ere.

Gutun hau lagungarria izango delakoan eta hemen edozertarako gaudela esanez, musu handi bat eta zaindu asko!

Aingeru

Kaixo, Matia fundazioko lagunok!

Nire izena Pablo Ochoa da eta Legazpi 7 euskaltegitik zuei bizi ari garen gure egunerokotik kanpo dagoen egoera hau nola jasaten ari garen kontatzea proposatu digute. Horretarako nire egunerokoan ez aspertzeko egiten ditudan ekintzak eta COVID-19-k sortutako situazioa kanpotik nola bizitzen ari den azalduko dizuet.

Lehenik, eskolekin, euskaltegiekin, futbol partiduekin eta beste milaka jardurekin zer gertatu denari buruz hitz egingo dugu. Badakizuen ez gu, gazteok, birus honen eramaile nagusia gara eta horren ondorioz eskolak eta kirol ekintza guztiak bertan behera utzi behar izan dira. Hari honetatik jarraituta, klaseak bideokonferentzien bidez eman behar izan ditugu non irakasleak bere ordenagailuko pantaila partekatzen zuen eta modu honetan ikasle guztiok klase normalak jarraitzeko gai izan gara. Hala ere, badaude beste irakasleek soilik klasero eginbeharrak plataforman zintzilikatzen dituztenak eta klase bukaeran egindako atazak bidali behar zaizkienei. Bi metodo hauek izan dira nire ikastolan behintzat erabili izan diren nagusiak. Honelako egoera duela hogeita hamar urte gertatu izan balitz, klaseak etxetik jarraitzea ezinezkoa izango litzateke garai hartan gaur egun ditugun apartu teknologiko aurreratuak ez zirelako existitzen.

Bigarrenik, nire egunerokoa nolakoa den azalduko dizuet. Gutun hau idazten ari naizen momentuan aste santua dela medio, klaserik gabe gaude beraz gutxi gorabehera goizeko hamaiketan esnatzen naiz. Koarentenan egiten ditudan jardura nagusiak eguzkitan egotea, Play Stationera jolastea eta kirola egitea dira. Hala ere, noizean behin etxekolan batzuk egiten ditut edo nire gurasoekin batera sukaldatzen dut. Arraroa iruditu daitekeen bezala etxetik atera ezin gaudelako, eguraldiak nire eguneroko ekintzen antolakuntzan garrantzia du. Esate baterako, eguraldi eguzkitsua badago, bazkalordua arte nire terrazan eguzkitan musika entzuten egoten naiz eta kirola egitearena arratsalderako uzten dut. Bestalde, lainotuta badago, kirola goizetan egiten dut jada gainera kentzeko eta arratsaldean beste ekintza batzuk egiteko, hala nola, familiarekin mahai jokoetara jolasteko.

Laburbilduz, koarentenan egon beharko ginela agindu zuenean presidenteak hainbeste denbora etxean aspertu gabe egotea ezinezkoa zela uste nuen baino eskerrak gaizki uste nuela. Oraindik ez dut izan unerik non zer egin ez jakitea, baina, noski, kalera ateratzeko izugarritzko gogoak bai izan ditudala. Gainera, oraintxe bertan New Yorken egon beharko nintzateke Coronavirusik egongo ez balitz eta udaran hilabete oso bat Californiara joango nintzateke. Txinatar birus honek bidai eta esperientzia kopuru handi bat bertan behera uztera behartu gaitu; hala ere, horretan pentsatzea ez da nagusia memento honetan baizik eta gure osasunean. Horregatik denok egoeraz kontziente egon behar dugu eta arduraz gure etxeetan edo, zuen kasuan bezala, egoitzan gelditu behar dugu ahal den azkarren kaleetatik pozik eta seguru ibiltzen jarraitzeko.

Musu handi bat,
Pablo

Amona edo aitona agurgarria:

Pozten naiz, ni Joana naiz, gure euskaltegiko irakasleak, Ainhoak, klaseko ariketa bezala gutun bat idaztea eskatu digu. Idazten ez naiz inoiz oso ona izan, baina beti gustatu zait.

Txikitan, Cordobako lagun batekin elkarri gutunak idatzi genizkion. Aurten ezkonduko da, baina ez daki ezkondu ahalko den. Gutun hau ez da harentzat, baina ilusio bera edo

gehiago sortzen zait. Nahiz eta zailtasun maila bat gehiago duen, gutuna euskaraz idazten ari naizelako.

Pixka bat niri buruz hitz egingo dizut. Bilbon jaio nintzen, baina bi urtetik hogeita bost urtera arte Malagan bizi izan naiz. Orain dela bost urte Bilbora etorri nintzen lan egitera, oraintxe bertan lotzen didana, "chicarrón del nortea" eta txakurtxo dira, azken honek zoratuta nauka. Egunero hiru aldiz ateratzen dugu hogei minutuz, udaltzaina badator...

Ez dakit egoera berdina pasatzen ari zaren, denbora gutxiago daukadala uste dut. Goiz jaikitzen segitzen dut, nahiz eta pixka bat guxiago. Bulegoa txikiagoa eta ezerosoagoa da, konfinamenduaren ondoren fisiora joan beharko naizela iruditzen zait.

Lan egin eta gero, euskarako klasea daukat, eta ez zaitez falta! Ainhoa adi dago.

Klasea amaitzen dudanean, batzuetan kirola egiten, liburua irakurtzen, pelikula edo serie ikusten dut...eta gutxienez astero bi aldiz familiarekin edo lagunekin geratzen naiz. Egun bat hamaiketakoan, beste bat pintxo potea ostiralean...

Baita janaria prestatzen ikasten ari naiz ere, nire amamak ikusten banau, ez du sinetsiko, azkenean bere ilobak janaria prestatzen daki, edo zerbait behintzat. Batzuetan deitzen diot galdetzeko: zenbat gatz? zenbat denbora irakin behar da? edo zenbat gramo irin?...batez ere kantitateak, gosez geratzen naiz edo auzokide guztiak elikatu ahal ditut. Nire sukaldaritzari buruzko zalantzez gain zelan dagoen, zer egin duen... galdetzen diot.

Amonari esaten dizkiodan gauza batzuk esango dizkizut, eta zuk ere lagunduko zaituela espero dut.

Ez zaude bakarrik, asko gara zure atearen beste aldean behar duzunerako gaudenak, erosketak egin, medikuntzak, zaborra bota...edo besterik gabe, norbaitekin hitz egiteko.

Familiarekin bideo-deiak egitea oso dibertigarria da astean behin. Egunero, auzokidekin data bat zortzietan daukazu txalotzeko, bakoitza bere leihoan. Adi nago eh!

Bizilagun berria ezagutuko duzula uste dut.

Animo eta dena ondo aterako zaizu!

Laster arte.

Kaixo:

Ez dakit nor zaren, baina, seguraski zuk nik bezala, konfinatuta; momentu honetan etxean egotea birusaren kontrako arma onena da. Ez da erraza, baina ikusiko duzu laster normaltasunera bueltatuko garela. Ikusi nuen Matia Fundazioan idea oso ona egon zela, eta hemen dago nire gutuna.

Lasartetik idazten dizut, eta nire kasuan, aprobeatzen ari naiz kofinamendua ikasteko, ingelesa eta euskara batez ere, eta saiatzen naiz nire familiarekin ez galtzen kontakturik, hau da, haiek guk bezala, konfinatutak daude eta ezin naiz bisitan joan, baina momentuz, ondo daude; orduan, espero dut horrela jarraitzea! Ez dut seme-alaberik, eta nire emazteak segitzen du lan egiten: medikua da, eta han dago, lehenengo lerroan! Baina ez kezkatu: oso ona da bere lanean eta arretaz ibiltzen ari da.

Badakit ez dela erraza horrela egotea, baina badago jende pila bat lan egiten ari den krisi honekin bukatzeko: zientzialariak ikertzen, erizainak eta medikuak sendatzen ospitaletan... Laster ikusiko ditugu emaitza onak!

Bitartean, aprobetxa ditzakegu beste pertsoneri idazteko eta ezagutzeko, eta esaten diegu ez daudela bakarrik eta dena normaltasunez itzuliko dela laster. Seguraski datorren hilabetean konfinamendua kenduko dute, pentsa batez ere, aurrera segitzea eta ez gelditu!

Zaindu asko eta besarkada handi bat!

Gorka

Hola, mi nombre es Mari Carmen y aunque no te conozco, se que en estos momentos estarás un poco triste por no poder estar con tu familia y amigos. Quiero decirte que a mi me pasa lo mismo.

Parece mentira que un virus nos tenga en esta situación ¿verdad?..Seguramente que no recuerdas haber tenido que estar en casa tantos días nunca, pero los medicos y sanitarios nos dicen que lo tenemos que hacer, sobre todo para proteger a las personas mayores o mas delicadas de salud.

Esto se hace largo para todos, pero pasará, como todas las cosas de la vida y despues de que volvamos a poder estar con nuestra familia y amigos, esto lo guardaremos como un recuerdo, algo para contarles a nuestros nietos y bisnietos.

Ahora lo más importante es cuidarnos para que cuando todo esto pase , podamos reunirnos con todas las personas que queremos y estemos todos bien.

te deseo de todo corazón que esto no se te haga demasiado largo, y que te cuides mucho.

Mucho ánimo.Ya nos queda menos.

Te envio un fuerte abrazo.

Hola, ¿Que tal te encuentras? Me imagino que algo sorprendida por esta situación tan especial que estamos viviendo todos, en la que se nos ha dicho que no podemos hacer lo que mas necesitamos en nuestro día a día, como es estar con nuestros hijos, con nuestros nietos, con toda la gente que queremos...El contacto de una mano amiga, de un abrazo, de un beso.....Si te digo la verdad a mi me cuesta mucho creerlo y aceptarlo también. No podemos entender que un virus haya podido cambiar de esta forma nuestra vida,y privarnos de las cosas que tanto necesitamos.Creo que ahora somos afortunados los que en nuestra casa podemos tomar un ratito el sol en la ventana o en la terraza.

Son muchos días los que llevamos ya sin poder salir de nuestras casas, sobre todo las personas mayores que sois las que mas tenemos que proteger de este virus.

Pero poco a poco va quedando menos para que esto termine, porque sabemos que en la vida todo pasa, y esto también pasará..

Quiero transmitirte mi cariño y mucho ánimo, cuidate mucho para que cuando todo esto pase todos nos volvamos a ver y que volvamos a disfrutar todos de nuestra familia y amigos.

Un abrazo.

Barakaldon, 2020ko apirilaren 8an

Kaixo!

Mireia dut izena, 17 urte ditut eta Barakaldon bizi naiz. Batxilergoko bigarren mailako ikaslea naiz eta ikasketak etxean jarraitzea tokatu zait. Nire etxean aita, ama, neba eta laurok gara.

Nahiz eta ia hilabete daramadan etxetik atera gabe, ez daukat denborarik aspertzeko. Denbora gehiena klaserako gauzak egiten pasatzen dut, baina nire aisialdian play-arekin jokatzeko, lagunekin hitz egin eta berrogeialdi honen berritasuna: sukaldatu. Hainbeste postre egin ditut, jada ez daramat kontua! Faltan gehien botatzen dudana, kalera irteteaz gain, nire lagunak eta aitona-amonak dira. Egoera hau amaitzen denean, egingo dudana lehena haiek ikustea eta besarkada asko ematea izango da.

Momentu hauek errazak ez diren arren, pozik nago nire ingurutik denok ondo gaudelako. Espero dut zu eta zure familia ere ondo egotea. Oso garrantzitsua da une honetan osasun agintarien argibideak jarraitzea eta etxean geratzea, batez ere, zu bezalako pertsonak, birusarekiko zaurgarriagoak zaretelako.

Beno, gustatuko litzaidake isolamendua zuri oso gogorra ez egitea, eta pentsatzea dena normaltasunera itzuliko dela eta elkar gozatu ahal izango dugula.

Besarkada handi bat,

Mireia

Portugalete, 2020ko apirilaren 9an

Arrasti on!!, C1ko maila ikasten dut euskaltegian eta pasa den astean irakasleak Matia Fundazioari buruzko informazioa bidali digu. Ekimenak zertan datzan jakin ondoren oso ideia ona iruditu zait eskutitz bat idaztea.

Normalean ez dut idazten gutunik, ez euskara ezta gaztelania ere. Beraz, ezer baino lehen, barkamena eskatu nahi dizut akats asko egingo dudalako. Baina egoera berezi honetan nire lotsa alde batera utziko dut eta salbuespen bat egingo dut.

Portugalete pisu txiki batean bizi gara. Lau gara: aita, ama eta bi seme. 6 urtekoak dira, bikiak. Hilabete bat daramagu etxean, atxilotuta. Momentu batzuk oso gogorak dira baina aitortu behar dut egunak pasatzen direla ia konturatu gabe. Egunero, gosalduta eta gero, sememekin klaseak prestatzen ditut. Ordu bietan jaten dugu eta etxekolanak egiten ditut: harrikoa, arropa garbitu, askaria, afaria...eta abar. Arratsaldero semeekin jolasten dut apur bat. Ez zaie batere gustatzen galtzea. Irabazten badut haserretzen dira nirekin, zorionez, gutxitan gertatzen da. Bat batean, eguzkia desagertzen da ilargiari lekua uzten.

Egun guztiak antzekoak dira. Aktiba egoten saiatzen naiz eta ordena mantentzea modu onena iruditzen zait gauzei buelta asko ez emateko. Hasieran umeek ondo hartu zuten egoera baina egunak pasa ahala lagunak eta familiaren falta sentitzen dute. Aitonarena batez ere. Ezin dute haien bizitza imajinatu aitona gabe. Egunero bideo-deiaren bidez berarekin kontaktu egiten dugu. Hau gertatu baino lehen Aitonak ez zekion ondo nola erabili segapotoa, orain, berriz, primeran moldatu egin du. Pena handia ematen die berarekin ez egoteak baina ulertzen dute ez dagoela beste erremediorik eta etxean geratu behar dugula birusa dela eta.

Ama ere bakarrik dago etxean. Alarguna da eta oso txarto eramaten du bakardadea. Coronavirus agertu baino lehen arratsaldero elkarrekin pasatzen ditugu baina orain telefonoz hitz egitearekin konformatu behar dugu. Goizez ez dago hain txarto baina arratsaldez beherakada ematen dio. Egunak oso luzeak egiten zaizkio. Normaltasunera bueltatzeaz gogo handiak ditu. Baikorra izaten saiatu arren oso urrun ikusten du amaiera. Seme-alabak beti esaten diogu gauza bera: egon lasai , garrantzitsuena osasun izatea da. Garai arraro hau egun batean bukatuko da eta berriro elkarrekin egongo gara dudarik gabe!.

Gauza bera esaten dizut , animatu!! Badakit egoera honetan beldurra sentitzen dugula eta oso erreza dela itxaropena galtzea, baina denok lasai egon behar dugu eta dena laster bukatuko da . Besarkada handi bat eta zaindu asko!

Portugaleten, 2020ko Apirilaren 25ean

Kaixo , familia :

Gutun honen bidez, zuengana hurbildu nahi dut, distantzia murrizteko modurik onena iruditu zaidalako, presentziaren ordez.

Zuek izan zarete gure aurretik bizitza honen ibilbide xumea zeharkatu duzuenak, gure gidari eta mezulari. Gure lana orain, zuek egindako bideak gozatuz eta aztertuz, zuen aurrekoengandik eskuratu zenuten heredentzia aberastua eman diguzuen bezala, ondokoentzat uztea da.

Izan ere, kate baten mailatxo batzuk baino ez gara , eta kate hura egoki mantentzeko, bere maila higatuak zaharraren zaharez desegin arte, berriekin lotuta joan behar dute, denok garelako kate beraren kide.

Ezusteko egoera krudel honen biktimarik gogokoenak zaretenez, orain dugu garaia, bai haur, gazte eta helduok, gure hurbiltasuna helarazteko. Gerraren ondorioak sufritu zenutenak zarete eta orain ere beste era bateko gerra bati lehenengo lerrotik aurre egin behar.

Beno, ba nik etxean gelditze hau nola daramadan egun batetik bestera kontatuko dizuet : goizean 8etan altxatzen naiz, dutxatu, txukundu, gosaldtu, familia eta lagunekin elkarriketatu . Ondoren, ariketa fisiko moderatu batzuk, eta jarraian euskarazko ikastaroaren telelanak prestatu .

